

ARRAZOIEN AZALPENA

Udal autonomia da toki-entitateen erregimen juridikoari eusteko zutaberik oinarritzkoenatako bat, izan ere horiek baitira herritarrengandik hurbilen dauden lurralde mailako administrazio publikoak, eta komunitatearentzat ezinbestekoak diren zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeak baitira, eta horiek, xalotasunez, jartzen baitituzte herritarren esku, Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuak eta bitarteak. Autonomia hori dela eta, udal araudi organikoari, ordenamendu juridikoaren barruan, oso maila garrantzitsua ematen zaie, eta horiek askatasunez erabaki dezakete, bai Udalaren antolaketa eta funtzionamenduko erregimenaren gainean, bai Korporazioak kide hautatuen Estatutu eta herritarren partehartzearen gainean, eta horien muga bakarrik, Estatuko Oinarritzko Legeriak eta Autonomia Erkidegotik eratorri daitekeen Legeriak, gai horri buruz, ezarri ditzakeenak izango dira.

Udalak Araudi Organiko bati bere onespena ematea erabaki du, eta horrekin, ordenamendu juridikoak baimentzen duen esparru zabalaren barruan, bai herritarrentzat, bai zinegotzientzat bai udalaren zerbitzuan dagoen pertsonalarentzat, orokorki, lanabes erabilgarri bat izatea bilatu da, eta testu bakar batean, gai horri buruz sakabanatuta dauden zehaztapenak bildu nahi izan dira, zeren eta, udal bizitzaren egunez-egunekoa erregulatzeraz zuzendua baita, eta joku-arauak demokraziaren printzipioetan oinarriturik ezarri nahi ditu, eta ahalegin handi bat egiten du, administrazioaren eraginkortasuna eta herritarren eskubideen arteko oreka, zaila bezain beharrezkoa, lortzeko xedean. Horregatik, testuak merezi duen garrantziari jarraiki, ahalik eta kontsentsurik zabalena lortu nahi izan da alderdi politiko guztien artean, baina hala ere, kalterik eragin gabe, araudiari eskatu behar zaion kalitate teknikoari.

Horrela, Atariko Tituluak, Udalari aplikagarri zaizkion printzipio orokor multzo bat hartzen du barne, eta esan behar da, hor, administrazioaren jarduerari aplikagarri zaizkion printzipioak sartzen direla, legalki onetsita daudenak, eta baita, barne sartzen dira, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Arruntari buruz, orain dela gutxi, onartutako Legerian jasotzen direnak; bestalde, horiek Europako Batasuneko Auzitegiaren jurisprudentzia izan dute iturburu, eta horrela dago sartuta, adibidez, Udalaren eta herritarren elkar arteko harremanean egon behar duen fede ona eta konfidantza. Baina, orokorki, legerian ezarrita

daudenetatik gain, ex novo sartzen dira, ez bakarrik Araudiaren iturri diren zenbait printzipio, baizik eta baita, udal jarduera osoa ere, nola diren, eraginkortasuna, kalitatea, herritarrei eskaini beharreko zerbitzua, gardentasuna eta partehartzea, zeren eta ulertu behar baita, Udalaren funtzionamenduak ez duela soilik demokratikoa izan behar, baizik eta gainera, herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaini behar dizkiela; izan ere hori, Toki Administrazioak ahortzi ezin dezakeen agindua, baita.

I. Tituluak, Udalbatzako kideen Estatutuari buruzkoa, Korporatibo izaera nola lortu, nola eten eta nola galtzen den erregulatzen du, eta bereziki horiek dituzten eskubide eta betebeharrak zehazten ditu. Hor jasotzen dira, ez bakarrik legeriaren azken aldaketak, baizik eta, baita, orain arte Udalatzak hartzen zituenak ere, “ad hoc” hartutako erabakien bidez, eta bereziki bere ordainketa erregimenari buruzkoa, eta horrek, materialki, bokazio zuzentzailea dauka. Titulu horrek arautzen du baita, Talde Politikoen gaineko Kapituluak, eta horrek koherentzia gordetzen du, gai horri buruz bai Auzitegi Konstituzionalak bai Auzitegi Gorenak egindako pronuntziamentuetatik eratorritakoarekin. Baita, defentsa juridikoari buruzko gaiak ere hor erregulatzen dira, bai Korporatiboena bai Korporazioaren zerbitzuan diharduen pertsonalarena, hirugarren baten aldetik injustiziazko tratamendua jasotzen dutenean. Azkenik, interesen erregistroa erregulatzen da, zeina gardentasunaren printzipioan oinarritzen den.

II. Tituluak Udalaren beharrezko antolaketa arautzen du, hori Alkate, Udalbatza, Alkateorde eta Gobernu Batzarrak osatzen dute, eta esan behar da, hori erregulatzeko orduan, kontuan euki direla baita, legerian, azken garaietan, eman diren aldaketa garrantzitsuak, bereziki eskuduntzen kontuan. Aipatu aldaketek, zehaztasun gehiagorik, mugatu nahi dituzte Udalbatzaren eta Alkatearen funtzioak, modu horretan, organo hark indartu ditzan bere funtzioak, bai arauemaile gisako ahalmenak, bai aurrekontuen onespeneari, bai planeamenduko tresna orokorreari dagokienez, eta bereziki, gobernu-organoen kontrolari dagokionez –ahalmen arauemaile eta gobernu-kontrola–, eta bienbitartean, Udalaren ohiko kudeaketaren funtzio generikoak Alkateari ezagutzen zaizkio –funtzio egikariztailea–; horrek guztiak, bestalde, parekotasun nabarmena du, edozein lurraldeko

erakunde publikoan, Legebiltzarraren eta Gobernuaren arteko funtzio banaketarekin.

III. Tituluak, beharrezko organoen funtzionamenduari buruzkoa, udal autonomia erabiltzeko aukera handiagoa uzten du, eta horri jarraiki, zenbait aldaketa aurrikusten ditu ordezkotza araudizko arautegian, nola den bitarteko informatiko eta telematikotza erabiltzeko aukera izatea, baita posta elektronikoa ere, zenbait egintza egiteko orduan; adibidez, aparteko eta presazko izaera duten Osoko Bilkuretarako deialdien jakinarazpenak egiteko. Halaber, parte hartzea bultzatzeko xedez, herritarren ekimenetik datozen mozioak eztabaidatzeko aukera irekitzen du, nahiz eta horiek ez izan inongo talde politikoren berme edo babesik, eta Osoko Bilkuretan, galdera-erantzunen txanda bat ezartzen da, bilkura horietara datorren jendearentzat; guzti hori, Auzotarren Estatutua jasoko duen Tituluan ezarrita bezala.

IV. Tituluak, Udalaren antolaketa osagarriari buruzkoa, ezagunak diren bi Organo motak zehaztasunez arautzen ditu; obligazioak direnak, eta borondatez sortzen direnak. Lehenegoei gagozkiola, honako hauek arautzen dira: Batzorde Informatiboak, Kontuen gaineko Batzorde Berezia, Gobernu organoen kudeaketa jarraitzeko Batzordea, Bozeramaileen Batzordea eta Kontratazioko Mahaiak. Batzorde Informatiboen erregulazioa, orain arteko eskarmentutik abiatuta egiten da, eta zenbait aldaketa sartzen dira, nola diren, bai Korporazioako kideek bai horren zerbitzura dagoen pertsonalak horietara agertu eta beren laguntza eskaintzeko daukaten obligazioa, horien aurrean deklaritzen dutenenek dituzten eskubide konstituzionalak ezagutzea, organo osagarri horien aurrean interesatuei audientzia ematea, eta Ordenantza eta Araudien tramitazioari buruzko oinarritzko erregulazioa, modu horretan, alderdi politikotza guztien parte hartzea bideratzeko; gai hori orain arte, erregulatu gabe egon baita, nahiz eta administrazioak bere jardunean, antzeko gauza egin duen. Gobernu-organoen kudeaketa jarraitzeko Batzordearen funtzionamendua, era berri batean, arautzen da, eta Ikerketa Batzordearen funtzioak izango dituela erabakitzen da; horrela, gai hori buruz dagoen lege-hutsunea betetzen du, eta hori, bere funtzioa betetzeko beharrezko izan dezakeen informazio guztia lortzeko eskuduntza aitortzen dio. Bozeramaileen Batzordeari dagokionez, horren funtzio aholku-emaileak eta Alkatearen laguntzaile gisa dituen funtzioak arautzen dira, eta hor argitzen

da, horien jarduerak bertako kideen iritzia adierazten dituzten arren, ez dituztela beste organoen erabakia ordezkatzeko, zeren eta horren osaketa ez baitator bat ordezkartza propozizionalaren irizpidearekin.

Borondatezkoak diren organo osagarriei dagokionez, Arloko Zinegotzi-Ordezkaritzak arautzeaz gain, borondatez sortzen diren beste organoak ere arautzen ditu, nola diren, Batzorde Berezia eta Teknikoak, hain zuzen, osaketa mistoa duten organoak bezala, oinarri politikotza eta teknikoarekin; modu horretan, helburu gisa, interes kolektiboak defendatzea duten elkarte, erakunde edo antolakundeek parte hartzeko aukera izan dezaten, eta horiei eragiten dien gaiei buruzko erabakia hartzeko unean, herritarren parte hartzea bidera dezaten. Baita, eratu daitezkeen organo bezala jotzen dira hurrengo hauek: Auzotako Alkatearen ordezkariak, Auzotako Udal Batzordeak, edo, zerbitzuak eskaintzeko beste organo deszentralizatuak, eta modu horretan, kudeaketa deszentralizaturako aukera handiak irekitzen dira.

V. Tituluak administrazio-prozeduraren funtsezko erregulazioa ezartzen du, eta horretan agertzen diren zenbait aginduren bidez, alde batetik, administrazioaren jardueraren gardentasuna – maiztasun gehiegiz, oso burokratizatu eta herritarren gehiengoarentzat ezin ulertuzkoa– eta bestetik baita, funtzionarioek eta Korporazioaren zerbitzuan dagoen pertsonalak egin behar dituzten txostenen objektibotasun eta inpartzialtasuna bermatu nahi dira; azken gai hori, bestalde, gobernu-organoen kudeaketa jarraitzeko Batzordearen esku jarri ahal izango da. Hor zehazten da baita, eta lege-aginduz zehaztu ere, derrigor, barneko posta elektronikoa erabili beharko dela, administrazioaren proposamenak Batzorde Informatiboari bidaltzeko, eta horien irizpenak Idazkaritza Nagusira bidaltzeko orduan; horrek, hala ere, ez dio kalterik eragiten, egoki izan litekeen dokumentu-euskarri fisikoa igortzeari; horrek guztiak, izan ere, jadanik partzialki egiten den praktika bat egonkortzen lagunduko baitu, eta kudeaketari begira, bitarteko ekonomikoaren arotzetamendu hobea ekarriko baitu.

VI. Titulua, Auzotarren Estatutuari dagokiona, Araudiaren oinarritzko zutabeetako bat da, eta hor, Osoko Bilkuretan, herritarrek mozioak, erreguak eta galderak egiteko duten aukera arautzen

da; eta auzotarren ekimenetik sortutako mozioak, Udaltzaren aurrean, ahoz aurkeztu eta defendatzeko aukera bera ere eskaintzen du. Baita, guztiz berri den era batean, kudeaketan erantzunkizuna duten Korporazioen aldetik pertsonalki entzuna izateko, gutxienez behin, herritarren eskubidea –Araudian ezagutzen dena– arautzen da, modu horretan, Udala herritarrei irekitzeko aipatu den printzipioa sakontze aldera. Udaltzaren gaineko publikitatea bermatzen da, eta horretarako, gai-zerrenda Auzotarren Elkarteetara bidaltzea, zentro ofizialetan jendaurreko jartzea, eta Gai Zerrendako puntu zehatzen batekin interesaturik leudekeen elkarte edo kolektiboren esku jartzea ere aurrakusten da. Azkenik, baita –era berritzaile batean–, herri-ekimen arauemailea ere ezagutzen da.

VII. Tituluak, Euskara arian-arian ezartzen joatea arautzen du, hori Euskal Herriko berezko hizkuntza baita, eta baita, herritarrei, Administrazioarekin euki beharreko harreman guztiak aipatu hizkuntzan izateko eskubidea aitortzen die. Azkenik, gai horri buruz, legeria orokorrean ezarritako beste eskubideak ere ezagutzen dira, eta horien artean azpimarkatzekoa da, auzotar multzo bati eragin lekiokkeen dokumentazio oro elebidun egon behar duela.

VIII. Tituluak, erabili behar den hizkeraren, gutxienezko zehaztapen bat, egiten du, eta sexu diskriminazio eragin dezakeen konnotazio oro sahiestu behar dela erabakitzen du, Emakundek gomendatutako ekintza positiboan planean ezartzen den arautegiari jarraiki.

Azkenik, Xedapen Iragarkorrek duten helburua da, orain indarrean dagoen egoeratik, Arautegian aurrikusitako berrira igarotzerakoan, transizioa bake eta lasaitasunez egitea, modu horretan, alderdi politikoei, legealdi hasieran, ezagutuak zituzten eskubideak ez kaltetzeko edo murrizteko. Azken Xedapenak Araudia indarrean noiz jarriko den erabakitzen du.

UDAL ARAUDI ORGANIKOA

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua. Araudiaren helburua.

Araudi honen helburua da, indarrean dagoen Legeriaren arabera, hurrengo hau arautzea:

- a) Udalaren erregimen eratzailea.
- b) Udal Organoen dagokien funtzionamendua.
- c) Korporazioko kide hautatuen estatutua.
- d) Administrazioaren antolaketa.
- e) Herritarren parte hartzea.

2. Artikulua. 1. Elizate Prestua den Basauriko San Migel Udalerriaren Gobernu eta Administrazioa Udalari dagokio, eta hori, bestalde, Alkate eta Zinegotziak osatua dago.

2. Udalak, Txit Goren, titulua du.

3. Artikulua. 1. Udalak, objektibotasunez, bilatzen ditu interes orokorrak, eta eraginkortasuna, deszentralizazio, deskonzentrazio eta koordinazio printzipioei jarraiki jarduten du, eta Lege eta Zuzenbideari atxikitzen zaio guztiz. Halaber, Udalak, fede ona eta bidezko konfidantza printzipioak errespetatuko ditu.

2. Udala, bere harremanetan, lankidetasuna eta elkarlaguntza printzipioetan oinarritzen da, eta bere jardunean, eraginkortasun, kalitate eta herritarren zerbitzua eskaintzeko irizpideetan, gardentasun eta partehartze printzipioen arabera.

3. Udala beste Administrazio Publikoekin harremanak dituenean, eta bere jardunean, instituzio-leialtasun printzipioaren arabera egiten du. Udalerriaren interesak kudeatzekoan, Udalak autonomia du, Legeak aitortzen dion bezala, eta Lurralde Administrazio Publikoa den bezainbatean.

4. Artikulua. 1. Izaera partikularra duten udal ebazpen administratiboek, hain zuzen, Udaltzaren, Alkatearen, Udaleko Gobernu Batzordearen edo Arloko Zinegotziaren eta Zinegotzi-Ordezkararen ebazpenek, ezingo dute izaera orokorreko xedapenetan ezarritakoa urratu, eta ezta ere, Araudi honetan ezarritakoa.

2. Udal ebazpenak, horretarako eskumena duen organoak emango ditu, eta horiek, ezarritako prozedurara, makurtu beharko dute. Horien edukiak, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarrita dagoenera lotu beharko du.

3. Hizkuntza ofizialak:

- a) Bai euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, bai Gaztelania, Udal Administrazioaren hizkuntza ofizialak dira.
- b) Udal agintariak horiek erabiltzeko eskubidea bermatuko dute, eta beharrezko neurri eta bitartekoak hartu eta jarriko dituzte, azaroaren 25eko 10/1982 Legea eraginkortasunez bete izan dadin, Hori Eusko Legebiltzarrarena da, Euskararen erabilera normalizatzeko Oinarriak, eta lege horren garapenerako eman daitezkeen gainontzeko xedapenak.

4. Banderen gainean: Banderak, horien sinboloak eta horien erabilera, indarrean dauden arau juridikoetan zehaztutakoa bete beharko dute.

5. Harma eta ziguaren gainean: Harma eta ziguari Udalak emango die onespina, eta partikularrek egin dezaketen erabilera, edozein kasutan ere, udal baimenaren menpe egongo da.

I. TITULUA

UDALEKO KIDEEN ESTATUTUA.

LEHEN KAPITULUA.

UDALEKO KIDE IZATEARI DAGOKION IZAERA LORTU, ETEN ETA GALTZEA. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

5. Artikulua. Bai udaleko kideen kopurua zehaztea, bai horiek aukeratzeko prozedura, bai horiek izango duten agintaldiaren iraupena, eta hautatueztasuna eta bateraeztasuna xedatzea, hauteskunderi buruzko Legerian erregulatutakoak dira.

6. Artikulua. 1. Alkateak, Jaun Txiki Argi edo Andre Txiki Argi titulua, izango du. Halaber, bai Alkateak bai Zinegotziak, beren karguak jabe egiten direnean, indarrean dagoen Legerian xedatuta bezala, horiei dagozkien eskubide, ohore, pribilegio eta goraipamen guztiak izango dituzte.

2. Halaber, karguak jabetu ahala, karguari loturik dauden eskubide eta obligazioak, hertsiki, betetzeko obligazioa dute.

3. Jarraia korporatiboa den bezainbatean, Korporazioko kideak Talde Politikotik eratu dira, legearen arabera eratuak eta hori aurrerakitzeko eskubide eta betebeharrekin, hala ere hurrengo salbuespena eukiko da kontuan, hau da, hauteskunde-taldeko kide izanik aukeratuak izan direnean, baina hark Talde Politikoa eratu duenean, hori barne sartzen ez direnak, edo jatorrizko taldea abandonatzen dutenak, horiek taldera atxiki gabeko kidearen izaera izango dute. Hauteskunde-kolizio gisa aurkeztu diren kandidaturak diren kasuan, kolizio hori osatzen duten alderdi politikotako batek kolizio hori uztea erabakitzen duenean, aipatu alderdiak diren korporatibok talde propioa eratu ahal izango dute.

7. Artikulua. Zinegotziak, hautetsia izan dela jakinarazi zaionean, kargu hori dagokion kredentziala, nahiko aurreraperakin, Idazkaritza Orokorrean aurkeztu behar du; modu horretan, Hauteskunde Lege Orokorrean zehaztutako Adineko Mahaia, kredentzial horiek, egiaztatu ahal ditza, Udalbatza eratu aurretik.

8. Artikulua. Hala ere, Udalbatzarkide kargua duenak, bere eskubide, pribilegio eta betebeharrak galdu egingo ditu, baldin eta ebazpen judizial irmo batek hori eskatuko balu.

9. Artikulua. Udalbatzarkide izaera galdu egingo dute, hurrengo inguruabarren bat ematen denean:

1. Erabaki judizial irmoaren ondorioz, hautaketa edo izendapena indargabetu ezker.
2. Heriotzagatik edo ezgaitasunagatik, azken hori, erabaki judizial irmoz, adierazi ezker.
3. Agintaldia agortzeagatik, epea iraungitzean, horrek ez dio kalterik eragiten bestalde, ondorengoek beren karguak hartu bitartean, funtziotan jarrai dezan, baina ohiko administrazio-gaietarako bakarrik.
4. Uko egitearren; hori hala ere, idatziz, Udalbatzari zuzendu beharko zaio. Uko egiteko idatzia, prestaketako ekintza bezala, hartuko da, Udalbatzaren aurrean, borondatezko aitorpena egiten ez den bitartean, hori horretaz jakitun egiteko helburuz.

5. Bateriaezintasunagatik, hauteskundeetako legerian ezarritako kasu eta baldintzetan.
6. Legeetan aurrikusitako gainontzekoetan.

10. Artikulua. 1. Zinegotziek, momentu oro, bateraezintasunaren gaineko arauak bete beharko dituzte, eta Udalbatza jakinean jarri beharko dute, baldin eta, hori eragin dezakeen edozein gertakizun emango balitz.

2. Bateriaezintasun kasua gertatutakoan, eta Udalbatzak hori aitortu ondoren, deklarazio horren eraginpean legokeen zinegotziak aukera egin beharko du, bateraezintasunaren jakinarazpena jaso ondorengo biharemunitik hasita, hurrengo hamar eguneko epean, ea zinegotzi karguari uko egiten dion, edo bestela, bateraezintasuna sortu duen egoera uzten duen.

3. Aurreko zenbakian esandako epea, adierazitako aukeraz baliatu gabe igarotzen bada, afektatuak zinegotzi-karguari uko egiten diola ulertzen da, eta hori horrela, Udalbatzak kargu hori bete gabe dagoela adierazi behar du, eta horren berri, Hauteskunde-administrazioari, eman behar dio, Hauteskundeei buruzko Erregimen Orokorrean, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. eta 208. artikuluetan, aurrikusitako ondorioetarako.

11. Artikulua.- 1. Zinegotzi guztiek, Udalbatzako bilkureta joateko eskubidea eta betebeharra dute, hitza eta botua izateko eskubidearekin, eta baita, berek parte diren beste organu kolegiatueta joatekoa ere, eragozten dien arrazoizko kasuetan izan ezik, zeinetan, Korporazioko Lehendakariari edo dagokion organo kolegiatukoari, beharrezko aurrerapenarekin, adierazi beharko dien.

2. Zinegotziek udalerritik kanpo hamar egunetik gora emango balituzkete, inguruabar hori Alkatearen jakinean jarri behar dute, edo ahoz edo idatziz, edo norberak edo talde politikoaren bozeramaileraren bidez, eta kanpoan egotea aurrikusten den denbora zehaztu egingo dute.

12. Artikulua. 1. Korporazioko kideek ordainsariak jasoko dituzte beren karguei dagozkien jarduerak egitearren, bai dedikazio osoz bai partzialez

burutzen dituztenean, eta kasu horretan, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda egongo dira, eta Korporazioak bere gain hartuko du, dagokion enpresa-kuoten ordainketa. Ordainketa hori, hala ere, ezingo da bateragarria izan, edozein Administrazio Publikoetako edo horien erakunde, entitate edo enpresako Aurrekontuen kontura egin daitekeen beste edozein ordainketarekin, hala ere, ez dio kalterik eragiten artikulua honetako 9. Atalean erabakitakoari.

2. Korporazioko kide baten erabateko dedikazioa edo dedikazio partziala ezagutua izateko, beharrezko izango da, bere karguari dagozkion eginbehar propioetara lehentasunez dedikatzea, horrek, hala ere, ez dio kalterik eragiten, beste eginbehar marginaletara dedikatzeari, baina ezingo dio lehen dedikazioari kalterik ekarri. Zeregin horiek ordainduak badira, beharrazkoa izango da, Udalbatzak bateragarritasunari buruzko adierazpen formala egitea. Edozein kasutan, erabateko dedikazio edo dedikazio partzialari dagokion eskubide ekonomikoak jasotzea ez da bateragarri, inolaz ere, Udaleko organo kolegiatuaren bilkuretara joategatik jaso daitezkeen ordainsariekin.

3. Udalbatzari dagokio, Alkatearen proposamenari jarraiki, Aurrekontuan agertuko den kontsignazio osoaren barnean zehaztea, alde batetik, bai erabateko dedikazio bai dedikazio partzialeko erregimenean bete daitezkeen Korporazioko kideen karguak, eta bestetik, horien kopurua, eta azkenik, horietako bakoitzari dagokion zenbatekoa, horietako bakoitzaren erantzunkizunaren arabera. Aipatu ordainsariak, urtean, hamalau ordainsari partzialetan banatuko dira, eta apartekoak, ekainean eta abenduan, emango dira, eta horiek osorik jasoko dira, baldin eta izendatutako zinegotzia bere karguan balego ordainketa-datan, eta horren zatia jasotzeko eskubidea izango du, prorrata, zinegotzi izaterari utziko balio lehenago.

4. Zinegotzi bat kargu baterako izendatzea, dela Dedikazio partzialeko erregimenean, dela erabateko erregimenean, Alkateak Dekretu bidez egin beharko du, horretarako beharrezko izan ditzakeen kontsultak egin ondoren. Aipatu dekretuan zehaztuko da dedikazioari buruzko erregimena, kasu bakoitzean dagokiona, partziala hala erabatekoa, eta ez du eraginik izango izendatutako zinegotziak idatziz, esanbidez, onartu dezan arte. Inguruabar horren berri Udalbatzari eman beharko zaio hurrengo bilkuran.

5. Alkateak bere kargua, erabateko dedikazio bakarrean, beteko du, eta kargu publikoetarako

bateraezintasunaren gainean indarrean dagoen arautegiaren eraginpean geratuko da. Hala ere, gerta daitezkeen inguruabar pertsonalak direla eta, erabateko dedikazioko erregimenetik salbuetsia utzi dezake bere burua, arrazoitutako ebazpenaren bidez, zeinaren berri Udalbatzari emango dion. Alkatearen erabateko dedikazioaren erregimenak ez du, hala ere, horrek emandako dekretu beharrik izango, eta nahiko izango da alkate beraren idatzi bat, non adieraziko duen erabateko dedikazioaren erregimenean garatuko dituela bere karguari dagozkion funtzioak, eta horren berri bestalde, Udalbatzari emango dio. Erregimen horren ondorio ekonomikoak, kargu hori hartzen denetik hasiko dira, baldin eta idatzi berean, Alkateak ez badu ondorengo dataren bat aipatzen.

6. Alkateak, Dekretu bidez, edozein momentutan, aipatutako karguetarako izendatu dituenak kargu horietatik ken ditzake, edo horien dedikazio partzial edo eksklusiboaren erregimena amaitu dela erabaki, eta horretara, erregimen horretako eskubide ekonomikoak galdu egingo dira, Dekretuak kargutik kentzea erabakitzen duen datatik.

7. Aurreko ataletan araututako dedikazio partzial edo erabatekoa aitortua eta onartua ez daukaten Korporazioko kide guztiek, asistentziagatiko eskubideak jasoko dituzte, berak partaide diren organo kolegiatuetara elkartzera joatearren, horren barnean dago baita, Borzera maileen Batzordea ere, horretarako Udalbatzak, osoko bilkuran, adieraziko duen kopuru eta erregelen arabera. Ordainketak, hilerro, egingo dira, hilabetea amaitu ostean.

10. Artikulu honetako aurreko bi ataletako kasuetan, nahitaezkoa, eta aldi berean, nahikoa izango da, organo kolegiatuko idazkaritza egiten duen funtzionarioak, Giza Baliabideen Udal Atalera, edo Udalaren menpeko diren erakundeetako administrazio-organotara, bidalitako oharra, horietan zentralizatuko baita, asistentziagatiko eskubideari dagokion ordainketaren gestioa. Okerrik edo desadostasunik emango balitz, edo dokumentu desberdinak egongo balira, dagokion Aktan jasota dagoena hartuko da kontuan.

13. Artikulua. 1. Korporazioko kideek parte hartzeari uko egin behar diote, bai eztabaidan, bai botoa ematean, bai erabakietan, bai egikaritzan, administrazio prozedurari edo Administrazio publikoen kontratuei buruzko legerian aipatzen diren zioak direla eta, horien gaineko gaitetan.

2. Aipatu zio horiek ematen direnean, kideen jarduerak, egintzen baliozkotasuna den bezainbatean, indarrean dauden xedapenetan

aurrikusitako ondorioak izango ditu, eta dagozkion erantzunkizun administratibo, zibil edo penalak sor ditzake, eta horrelakorik somatu ezkerro, ofizioz eskatuko dira. Aipatu erantzunkizuna, aurretik salaketa egon denean, gobernu organoen kudeaketa jarraitzeko Batzordearen bidez izapidetuko da.

14. Artikulua. 1. Udalbatzako kide guztiek dute, Alkate edo Arloko Ordezkarien bidez, Udal zerbitzuen esku dauden aurrekari, datu edo informazioa lortzeko eskubidea, baldin eta beren funtzioa garatzeko beharrezko suertatzen bada. Halaber, Alkateak eta Arloetako Ordezkaritza duten zinegotziek obligazioa dute zinegotziek eska diezaioketen informazio hori guztia emateko.

2. Aurreko atalean ezagututako eskubide hori betetzeko eskaria, hori aurkezten denetik hasita, hurrengo bost egun naturaleko epe barruan bete beharko da, eta epe hori betetakoan, emana izan dela ulertuko da, isiltasun administratiboaren bidez. Eskatutako informazioa emateari uko egiten bazaio, bai bere osotasunean, bai partzialki, aipatu ebazpena, arrazoitua izan beharko du.

3. Informazioa jasotzeko baimen mota hori, Alkateak eta Ordezkaritza Zinegotziek bakarrik, eta ez beste inork, eman dezake, edo legalki, horien ordezkari direnak. Inoiz ezingo dute baimen hori funtzionarioek eman, edozein delarik ere horien kategoria, eta ezta, interesaturik legokeen Zinegotziak, bere eskari horrek, ustezko baimena duela, adieraziko balio ere.

15. Artikulua Aurreko artikuluan xedatutakoaz gain, hala ere, esan behar da, udal administrazio-zerbitzuek informazioa ematera beharturik daudela, horretarako, Korporazioko partaideak baimena egiaztatutako beharrik gabe, hurrengo kasu hauetan:

- a) Informazioa, Ordezkaritza edo kudeaketaren gaineko erantzunkizuna duten Korporazioko partaideek eskatzen dutenean, kargu horiei buruzko informazioa jasotzea den bezainbatean.
- b) Korporazioko edozein kidek informazioa eskatzen dutenean, baldin eta, berek partaide diren organo kolegiatuek eztabaidatu behar dituzten gaiei buruzko informazioa bada, eta horiei buruzko dokumentazioa eskatzen

badute, eta bestalde, baita, edozein udal erakundek hartutako ebazpen eta erabakiren berri ematea denean.

- c) Baldin eta, Korporazioko kideek eskatzen duten Udalari buruzko informazioa edo dokumentazioa, herritar orok hori lortzeko sarrera librea badauka.

16. Artikulua. 1. Orokorki, dosierren, liburuen eta dokumentazioaren kontsulta eta azterketa zehatza egitekoan, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

- a) Edozein dossier edo dokumentuaren aurrekariren kontsulta, orokorki, lehenengo eta behin, bakarrik, hori aurkitzen den tokian bertan egin ahal izango da, eta hori ezean, artxibo orokorrean, eta hori egin ahal izango da, edo dossier bera edo horren kopia entregatuz udal batzordekideari. Kopia egitea, aurreko artikuluan aipatutako kasuetan bakarrik egingo da, zinegotziak informaziorako sarrera librea duten kasuan, eta baita, Alkateak edo Ordezkaritza duen zinegotziak baimena ematen duenean. Zinegotzientzako sarrera libreko dokumentuak izan arren, horiek dokumentu horien kopia edo egiaztagiria eskatzen badituzte, eta horien kopuru, bolumen edo zabalera dela eta, edo horiek utzi aurretik, artxiboko azterketa sakona egin behar delako, dagokion zerbitzuari, geldituta handia ekarriko balio horrek, kasua daraman funtzionarioak, erabakia, alkatearen esku utzi dezake, zeinak Araudiko 14.2 artikuluen arabera erabakiko duen.
- b) Dosierrak, liburuak eta dokumentuak inoiz ezingo dute Udaletxetik irten, ezta, dokumentu horiek dauden Udaletxeko dependentzi eta bulegoetatik, ez bada, ebazpen judizialaren bidez.
- c) Udalbatza eta Gobernu Batzarraren akta-liburuen kontsulta, eta Alkatearen ebazpen liburuena, Artxiboan, edo Idazkaritza Nagusian, egin beharko da.
- d) Udalbatzaren edo Gobernu Batzarraren bilkuretan aztertzeak diren dosierren azterketa, bakarrik, Idazkaritza Nagusian egin ahal izango da, non, udal batzordekideen esku egongo diren, bilkura horren deialditik hasi eta hori egin bitartean.
- e) Batzorde Informatiboen bilkuretan aztertzeak diren dosierren azterketa,

batzorde bakoitzari dagokion Idazkariaren bulegoan egin beharko da.

2. Alkateak edo Ordezkaritza duten Zinegotziek, aparteko kasuetan bakarrik, eman ahal izango dute, dosierrak edo dokumentuen aurrekariak aztertze baimena, horiek tramitatzen diren bulegoetan izan gabe, beste batzuetan egiteko. Dagokion administrazio kontrolerako, dokumentazioa jasotzen duten zinegotziek, hori jaso izana sinatu beharko dute, eta dosierra eta dokumentazioa itzultzeko obligazioa izango dute, berrogeita zortzi orduko gehieneko epean, edo lehenago, dagokion dosierra tramitatze berraren arabera.

3. Udaleko kideek isiltasuna gordetzeko betebeharra daukate, beren funtzioa garatzeko aukera izateko helburuz, ematen zaien informazioari buruz, batez ere, erabakiak hartzeko aurrekari moduan erabili behar diren gainean, baldin eta oraindik erabaki hori hartzeke badago, eta bestalde, ezingo dute horiei buruzko kopiarik egin.

4. Dosierrak gordetzeko betebeharrak hori edo emandako informazioa isilean gordetzeko betebeharrak hori betetzen ez duen zinegotziak, beste zenbait erantzunkizunen menpe geratzeaz aparte, Alkateak zigor dezake, Euskal Autonomi Erkidegoaren legerian ezarritako mugen barruan, edo horren ordezko den Estatuko legeriaren muga barruan.

17. Artikulua. Udaleko Zinegotziek, bakoitzak bere gutunontzia izango du Udaletxean, modu horretan, gutun ofizialak, bai barnekoak bai kanpokoak, jasotzeko aukera izan dezaten.

18. Artikulua Korporaziokideek ezingo dute bere kargua aipatu, ez zuzenean ez zeharka, ezta izaera horren erabilera egin ere, edozein jardura komertzial, industrial edo profesional egiteko orduan, bakarrik horrela egin ahal izango dute, lege, Udal Erakundearen ordezkaritza dutenean, eta helburu horrekin dihardutenean.

BIGARREN KAPITULUA.

TALDE POLITIKOAK.

19. Artikulua. 1. Korporazioki kideek, beren jarduera korporatiboa gauzatezeko, udal talde politikoak eratuko dituzte, Araudi honetako 6.3 artikuluan ezarritako salbuespenarekin.

2. Inor ezingo da, aldi berean, talde batekoaz gain, talde gehiagoko partaide izan.

3. Inoiz ezingo dute talde politiko banandua eratu, hauteskundeetara, alderdi, federazio edo hauteskute-talde beraren barruan aurkeztu diren zinegotziek.

4. Talde politiko bateko zinegotzi gehienek, hauteskundeetan kandidatura aurkeztu zuen erakunde politikoaren barnean parte-hartu arren, hori abandonatzen dutenean, edo hortik kanporatuak izan direnean, aipatu erakunde politikoan irauten duten zinegotziak izango dira adierazitako Talde Politiko hori osatuko duten kide legitimoak, ondorio guztietarako. Edozein kasutan Korporazioko Idazkariak, dagokion kandidatura aurkeztu zuen erakunde politikoaren legezko ordezkariarengana zuzendu, eta horri eskatu ahal izango dio, ezen adierazitako inguruabarrak egiazta ditzala.

5. Udal talde politiko bakoitzak izen bat aukeratu du, hauteskundeetara aurkeztutako kideek zutenarekin ados egongo dena.

6. Udal talde politiko desberdinek autonomia osoa izango dute, beren barne antolaketari dagokion bezainbatean.

20. Artikulua. 1. Talde politikoaren eraketa Alkateari bidalitako idatziaren bidez prestatuko da, zeina taldeko partaide guztiek sinatuko duten, eta hori, Udaleko Idazkaritza Nagusian, aurkeztu beharko da, Udalbatza eratu denetik hasita, hurrengo bost lanegunen barruan.

2. Idatzi berean, taldeko Bozeramailearen izendapena egingo da, eta horretan, ordezkokoak ere izenda daitezke.

21. Artikulua. 1. Alkateak Udalbatzaren jakinean jarriko du, talde politikoaren eraketa, eta horietako partaide eta bozeramaileak nortzuk diren, aurreko

ataleko 1. Zenbakian aurrikusitako epea igaro ondoren, egingo den lehen bilkuran.

2. Udalbatzak eskuduntza du, talde politikoaren eraketaren gaineko legalitatea aztertu eta erabakitzeko, horretarako, talde politikoaren eraketari buruz egoki lerizkion erabakiak har ditzake; jarrera hori administratiboa da, eta epaitegian berrikusia izan daiteke. Ondorioz, Udalbatzak, prestaketako idatziak Zuzenbidearekin bat datozenak badira, “jakintzat” eman dezake, edo bestela, eztabaida ditzake, eta horren edukiari erantzun, eta egoki diren erabakiak hartu.

3.- Halaber Udalbatzak eskumena du, taldeetara atxiki gabeko Korporazioko kideei buruz sor daitekeen edozein inguruabar aztertu, eta horri buruz erabakiak hartzeko, eta Alkateak proposatu ondoren, beharrezko erabakiak hartuko ditu, eta horretarako, ez dago zertan ordezkaritza proportzionalaren irizpiderik jarraitu beharrik. Jarduera hori administratiboa da halaber, eta beraz, berrikuspen jurisdikzionalaren menpe geratzen da.

22. Artikulua. 1. Talde Mistoa, hurrengo zinegotzi hauek osatzen dutena dela, ulertzen da:

- a) Alderdi, federazio, hauteskunde-koalizio edo hauteskunde-taldeko hautagai bezala, udal hauteskundeetan, parte hartu duten zinegotziek; baina, talde propioa eratzeko 19. artikuluko 3. zenbakian ezarrita dagoen gutxienezko kopurua lortu ez duten zinegotziek.
- b) Hauteskundeetan, alderdi, federazio, hauteskunde-koalizio edo hauteskunde-talde bateko hautagai bezala aurkeztu arren, hori utzi, eta Talde Mistoa sartzeko aukeraz baliatzen diren zinegotziak. Zinegotzi horiek ezingo dute, inola ere, jadanik eratuta dagoen beste talde bateko partaide bihurtu, ez badira behintzat, berriro ere, hasieran utzitako talde berean sartzeko aukeraz baliatzen.
- c) Edozein arrazoiengatik, berarizko izena duen Talde Politiko baten partaide izateari utzi dioten zinegotziek.

2. Talde Mistoa, horretarako, Alkateak deitzen dionean, Bozeramaile funtzioak egingo dituztenen izenen berri emango dio horri, eta bere kasuan, baita, ordezkoen izenak ere.

3. Talde Mistoko Bozeramaileak, Alkateari, talde horretan gertatzen diren inkorporazioaren berri emango dio.

4. Talde Mistoa osatzen duten zinegotziek – egongo litzatekeen kasuan– edozein delarik ere kopurua eta jatorria, beste talde politikoetako gainontzeko zinegotziek dituzten eskubide eta obligazio berak izango dituzte.

23. Artikulua. Legegintzaldi baten iraunaldian, talde politiko bateko partaideen kopuru osoak aldatetak jasaten dituenean, Batzorde Informatiboetako ordezkaritza, momentu bakoitzean dagoen proportzioaren arabera izango da, partaideek osatzen duten kopuruaren arabera.

24. Artikulua.– Beren zinegotzi izaera, bilkura sortzailearen ondoren lortu duten Korporazioko kideek, jadanik sorturik leudekeen taldeetara inkorporatu beharko dute, ezarrita dauden arauen arabera, salbu eta, koalizioaren kasuan, izan ere, hauteskunde erakunde edo alderdiak eratutako Talde Politikora ez inkorporatzea erabakiko balute, kasu horretan, taldera atxiki gabekoak izango bailirateke.

25. Artikulua Talde politiko bakoitzak, Udaletxean, modu independentean bildu eta jendeari harrera egiteko aukera eskainiko dion bulego edo lokal bat eukiko du. Horrezaz gain, Alkateak edo Giza Baliabideen Arloko Ordezkariek baliabide materialen gutxienezko azpiegitura jarriko du, talde politiko bakoitzaren esku.

26. Artikulua. 1. Talde politikoei, herriko interes kolektiboen defentsan diharduten elkarteekin bilerak edo lan-saioak egiteko, erabili ahal izango dituzte Udaleko lokal horiek, bestalde, interes horiek bai orokorrak bai sektorialak izan daitezke.

2. Alkateak edo Giza Baliabideen Ordezkariek aipatu lokalen erabilpen zehatzari dagokion erregimena erabakiko dute, Udaleko Taldeek eman behar dioten erabilpena den bezainbatean, eta kontuan izango dute beharrezko koordinazio funtzionala.

3. Udalbatzaren bilkurak diren uneetan ez da bilera mota horiek egiten utziko, arrazoizko zioen bat ez bada ematen behintzat.

27. Artikulua. 1. Talde politikoei dagokie, Udaleko kideez osatutako organo kolegiatu guztietan, beren ordezkari izango dituzten kideak izendatzea, izan ere, horiek talde politiko desberdinetako kideez osaturik baitaude, eta hori, idatzi baten bidez, egingo dute, Bozeramaileak Alkateari zuzenduko dion idatziaren bidez.

2. Talde Politikoei prozedura bera erabiliko dute, erakunde autonomo, enpresa publiko eta pribatu desberdinetan ordezkaritza izateko eskubidea izanik, horiek izendatzeko orduan, beti ere udalak, horietan, ordezkaritza bat baldin badauka.

3. Udal talde politiko guztiek dute, Talde Mistoa barne dela, Erakunde Autonomo eta udalaren titularitate eskusiboa duten Enpresetako gobernu-organismoetan ordezkaritza izateko eskubidea.

4. Udal titularitatea partekatua duten gainontzeko kasuetan, Udalbatzak, Alkatearen proposamenari jarraiki, horko kideetatik, udal ordezkariak izendatuko ditu, erakunde eta organismo publiko eta pribatu desberdinetan.

28. Artikulua. Udalbatzak, udaleko urteko aurrekontuen kontura, zuzkidura ekonomikoa esleitu ahal izango die talde politikoei; zuzkidura horrek, bestalde, alde batetik, kopuru finko bat izango du, talde politiko guztientzako berdina izango dena, eta bestea, aldagarria izango da, talde politiko bakoitzaren kideen kopuruaren arabera, eta kasu bakoitzean, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean izaera orokorrekin, ezarri ditzakeen mugen barruan, eta hori ezingo da Korporazioaren zerbitzura egon daitekeen edozein motatako pertsonalaren ordainketara destinatu, eta ezta ere, ondare-izaerako aktibo finkoa eratu dezakeen ondasunen erosketetara ere.

2.- Atxiki gabeko kideen eskubide ekonomiko eta politikoei ezingo dute, jatorrizko taldean iraunda egokitu lezaizkioketenak baino handiagoak izan. Aurrikuspen hori ez da aplikagarria izango hurrengo kasu honetan, hain zuzen, hauteskunde koalizio gisa aurkeztutako kandidatura izanik, horren osaketan parte-hartu duen alderdi politikoren batek abandonatzea erabakitzen duenean.

3. Talde politikoek, aurreko zenbakian agertzen zen zuzkidura horri buruzko berariazko kontabilitatea eraman beharko dute, eta udalbatzaren esku jarriko dute, Udalak eska lezaikkeen guztietan.

4. Udalbatzak, Alkatearen proposamenari jarraiki, horretarako, aurretik dosierra izapidetu ondoren, non, dagozkion proba dokumentalak azalduko diren eta non, edozein kasutan, interesatutako Taldeari audientzia emango zaion talde horretako Bozeramailearen bidez, arrazoitutako ebazpen eta gehiengo absolutuz erabaki dezake, artikulua honetan aipatzen den zuzkidura ekonomikoa murriztu edo kentzea, bere osotasunean edo horren zati batean, baldin eta Talde Politiko batek udal zereginak egiteari utzi edo organo kolegiatueta etortzeari, horietako partaide izanik, behin eta berriz, utziko balio, era nabarmenean eta zuritu gabeko arrazoiengatik, eta jarrera horri eutsiko balio, hori aldatzeko egindako eskariei kasu egin gabe. Aipatu ebazpenari, egoki liratekeen helegite administratibo eta judizialak jarri ahal izango zaizkio.

HIRUGARREN KAPITULUA.

UDAL BATZARKIDEEN DEFENSA JUDIZIALARI BURUZ.

29. Artikulua. Udalak, kanpokoak eta independenteak izango diren abokatuen bidez, bere laguntza eta elkartasuna, baita ekonomikoa ere, eskainiko dio Udalaren zerbitzuan dauden Zinegotzi eta pertsonalari, baldin eta, bere iritziz, zeina osoko bilkuran gehiengo arruntez hartutako erabaki bidez adieraziko beharko den, bidegabeki, biktima izan balira, prentsako idatzi edo adierazpen publikoetan, ustezko irain, kalumnia edo legez kontrako beste edozein ekintza penal bidez, hor barne sartzen dira baita, bere funtzioak garatzeari buruzko ekintzak ere.

LAUGARREN KAPITULUA.

INTERESEN ERREGISTROA.

30. Artikulua. 1. Korporazioaren Idazkaritza Nagusian, horko partaideek dituzten interesen erregistroak eratzten dira. Erregistroaren zainketa eta zuzendaritza Idazkari Nagusiari dagokio. Erregistroa berez, Kapitularen aitorpenen bildumak osatuko du.

2. Udalbatzako partaide guztiek egingo dute, balizko bateraezintasuneko kausen gaineko aitorpena, eta baita, sarrera ekonomikoak eragiten dizkien edo eragin diezaizkiekeen edozein jardueraren gaineko aitorpena. Halaber, beren ondarezko ondasunei buruzko aitorpena ere egingo dute.

3. Bi aitorpen horiek, Udalbatzak onetsitako eredu-orrietan eginak, kargua, jabetzan, hartu aurretik egingo dituzte, eta kargua uztean, eta egitez, inguruabarrak aldatzen direnean.

4. Balizko bateraezintasun kausen eta jardueren gaineko erregistroak izaera publikoa izango du, eta Idazkari Nagusiak sarrera izango du horretara, zeinak, egon daitezkeen jazoerei buruzko informazioa emango duen, baldin eta horiek Udalbatzak ezagutu beharko balitu. Ondarezko ondasunei buruzko erregistroko sarbidea, Udalbatzak erabaki dezakeen kasu eta eran izango da soilik, eta edozein modutan, afektaturiko korporaziokideen intimitate-eskubidea bermatuko da, edo bestela, agindu judizialaren bidez.

Baldin eta zinegotzi batek, bere aitorpena gutunazal itxian aurkeztuko balu, horren edukari buruzko zuzentasunaren erantzunkizuna, bere kasuan, aitorpena egiteko obligazioa lukeen zinegotziaren gain geratuko litzateke, eta bere gain bakarrik.

Baldin eta gutunazal itxian, ondasunen aitorpenaz gain, balizko bateraezintasuneko kausen gaineko aitorpena ere egongo balitz, eta kontuan izanik, azken hori publikoa dela, Idazkariak gutunazala bi lekukoen aurrean irekiko du, eta balizko bateraezintasunen eta jardueren gaineko aitorpena atera egingo du, eta berriro ere, gutunazala itxi egingo du, zeina diligentzia bidez sinatuko duen, baina ez du edukirik aztertuko.

II. TITULUA

UDALAREN BEHARREZKO ANTOLAKETA.

LEHEN KAPITULUA.

XEDAPEN OROKORRAK.

31. Artikulua. 1. Basauriko Udala, Basauri Udalerriaren gobernu eta administrazio organoa da, eta Zuzenbide Publikoko Korporazio izaera du.

2. Udalaren antolaketa, hurrengo era honetan, egituratzen da:

- a) Beharrezko Gobernu Organoak.
- b) Organo osagarriak, beharrezkoak eta borondatezkoak.
- c) Deszentralizaziorako, deskonzentraziorako eta partehartzeko organoak.

3. Udalaren derrigorrezko organoak dira:

- a) Alkatea.
- b) Udalbatza.
- c) Alkateordeak.
- d) Gobernu Batzarra.

4. Araudi Organiko honetan erregulatzen diren gainontzekoak, Udalaren organo osagarriak dira, nahiz eta Batzorde Informatiboak, horiek Udalbatzako gaien gaineko irizpenak emateaz arduratzen dira, Kontuen gaineko Batzorde Berezia, Kontratazioko Mahaia edo Mahaia, Bozeramaileen Batzordea eta gobernu-organoen kudeaketa jarraitzeaz arduratzen den Batzordea, organo osagarri derrigorrezkoak diren.

5. Organo osagarri derrigorrezkoak Udalbatzak eratu edo ezagutuko ditu, eta horien osaketa ere berak zehaztuko du. Borondatez eratzen diren organo osagarriak Alkateak edo Udalbatzak eratuko ditu, eskuduntza zeinena den kontuan izanda, eta hori jakiteko, organo horiek zein gaiez arduratu behar duten begiratu beharko zaio; baina beti, Udalbatza jakinean egon beharko du.

BIGARREN KAPITULUA.

UDAL AGINTALDIA ERATZEA, INDARREAN EGOTEA ETA HORREN AMAIERA.

32. Artikulua. 1. Hauteskunde legean, Udalak eratzeke ezarrita dagoen ekitaldi-eguna baino lehenagoko hirugarrenean, bai Udalbatza, bai Gobernu Batzarra bai Batzorde Informatiboa utziko

dituzten zinegotziek, bilkura egingo dute, eta hori, aurretik egindako azken bilkurako aktari onespenez emateko soilik deituko da.

2. Idazkariak eta Kontuhartzaileak beharrezko neurriak hartuko dituzte, Udalbatza eratuko den egunean, arkeo bat egin dadin, eta udalak, kutxan edo erakunde finantzarioetan, ezarriak dituen diruei edo Korporazioko balore propioei buruzko egiaztagirak prestatuak eta eguneratuak egon daitezzen, eta bestetik, baita, Udaleko eta horren erakunde autonomoen ondarezko inbentarioari dagokion dokumentazioa prestatuak egon dadin.

33. Artikulua. 1. Udalbatza, ekitaldi publikoan, hauteskundeak egin ondorengo hogeigarren egunean eratzen da, ez bada behintzat, helegite hautes-kontentsiosoa aurkezten hautatutako zingotzien jakinarazpenaren aurka, izan ere, kasu horretan, hauteskunde ondorengo berrogeigarren egunean eratuko baita.

2. Horretarako, Adineko Mahai bat eratuko da, horretan, ekitaldian dauden hautetsietatik, adinez nagusiena eta gazteena egongo dira, eta Idazkari gisa, Udalbatzarena den berak jarrdungo du. Adineko Mahaiak Udalbatza eratzeke osoko bilkura presiditzen du, ondorio guztiekin, hura hasten denetik Alkateak bere kargua hartzen duen arte. Mahaiburuan, adinez nagusiena den zinegotzia eseriko da, Alkate berria bere karguaz jabetu arteko unera arte.

3. Mahaiak, aurkezten zaizkion kredentzialak, edo hautetsien nortasuna egiaztatzen duten agiriak egiaztatuko ditu, horretarako, Zonaldeko Hauteskunde Batzordeak Udalari bidali dizkion egiaztagirak hartuko ditu oinarri.

4. Aurreko ekintza egindakoan, Mahaiak Udalbatza eratua izan dela adieraziko du, baldin eta hautatutako Zinegotzien geihengo absolutua bertan balego. Horrela ez balitz izango, bi egun beranduago egingo da bilkura, eta Udalbatza eratua geratuko da, aurkeztutako zinegotzi kopurua edozein delarik ere.

5. Jarraian, Udalbatzak Alkatea aukeratzeari ekingo dio, Hauteskundearen gaineko Legeria Orokorrean aurrikusita dagoen bezala. Zinegotzien bozketa isilpekoa izango da, Araudi honetan aurrikusita dagoenaren arabera. Emaitzaren berri Idazkari Nagusiak emango du, eta Adineko Mahaian Buru egiten duenak Alkatea izendatuko du. Alkate izendatua izaten denak bere

karguaren jabetza hartuko du, Udalbatzaren aurrean, indarrean dauden xedapenen arabera, eta hori eratzeko bilkuran ez balitz presente egongo, berrogeita zortzi orduko epean, errekerimendua egingo zaio karguaz jabetu dadin, aurrekoan bezala, Udalbatzaren aurrean, eta ohartarazpena egingo zaio, ezen, ez bada agertzen, arrazoizko kausarengatik ez bada, Alkate kargua hutsik egotean, Hauteskunde Legean ezarritakoa egingo dela.

34. Artikulua. Udalbatza eratzeko ekitaldia egin ondorengo hogeita hamar egunen barruan, Alkateak, beharrezko izan daitezkeen Udalbatzaren aparteko osoko bilkura edo bilkurak deituko ditu, hurrengo puntu hauei buruzko erabakiak hartzeko:

- a) Aurkeztutako idatziak ezagutu, eta talde politiko eta bozeramaileen eraketari buruz beharrezko erabakiak hartzeko.
- b) Osoko bilkuren aldizkotasuna zehazteko.
- c) Batzorde Informatibo iraunkorrak edo egiturazkoak sortu eta horien osaketa zehazteko.
- d) Organo kolegiatuetan, Udalbatzako ordezkariak izendatzeko, horren eskuduntza den bezainbatean.
- e) Alkateak, hurrengo izendapenei buruz, emandako ebazpenak ezagutzeko: Alkateordeak, Gobernu Batzarreko partaideak, Arloetako Ordezkariak, Batzorde Informatiboetako Lehendakariak, eta baita, Alkateak egoki irudituta, beste udal organoetarako izendatu dituen gainontzeko ordezkariak.
- f) Funtzionario ebentualei buruz, Alkateak eman lezazkeen ebazpenen berri emateko.
- g) Alkatearen proposamenak, bere kasuan, talde politikoei diru-esleipena eta zinegotzien ordainketa zein erregimenean egingo den zehaztuz.

35. Artikulua 1. Udaleko partaideen agintaldia lau urtekoa da, eta hori, hautatutako egunean, hasten da kontatzen.

2. Agintaldia amaitutakoan, partaide horiek funtziotan jarraituko dute, Araudi honetako 9.3 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, eta ezingo

dute, legalki, gehiengo kualifikatuz hartu beharreko erabakirik hartu.

HIRUGARREN KAPITULUA.

ALKATEAREN GAINEAN

36. Artikulua. Alkatea bera da Udalburu, eta udal administrazio guztiaren buru.

37. Artikulua. Alkateak, bere kargua uzten du, hurrengo zio hauen ondorioz:

- a) Agintaldia amaitzearen, horrek ez dio kalterik eragiten funtziotan jarrai dezan, Alkate berria karguaz jabetu arte, hauteskundeetako legeria orokorrean ezarrita dagoen arabera.
- b) Bere karguari uko egitearren, horregatik hala ere, ez du zinegotzi izaera galtzen. Uko egitea, Udalbatzari zuzendutako idatzi bidez prestatuko da, eta ondorioa, Udalbatzak horren ezagutzari buruzko erabakia hartzean izango du, eta bilkura horretarako deia, gehienez, hurrengo hamar egunetan egingo da.
- c) Heriotzagatik.
- d) Zentsura-mozioa onartzearen ondorioz, hauteskunde lege orokorrean ezarritako terminoen arabera.
- e) Epai judizial irmoaren ondorioz, kargua betetzeko gaitasunik gabe uztearren.
- f) Toki Erregimeneko edo Hauteskunde Legerian aurikusitako gainontzeko kasuetan.

38. Artikulua. Alkate kargua hutsik egotean, titularrak uko egin diolako, hil egin delako edo epai irmoagatik, Alkate berria hautatzeko ezohiko bilkura, hauteskunde legean ezarritako baldintzapean, egingo da, Udalbatzak ukoaren berri izan ondorengo, hil ondorengo, edo epaiaren jakinarazpen ondorengo, hamar egunen barruan, kasu bakoitzaren arabera.

39. Artikulua. Alkateak hurrengo eskuduntza hauek ditu:

- 1 Udal gobernu eta administrazioa zuzentzea, eta Araudi Organiko honi jarraiki, Udalbatzako zerbitzu administratiboak antolatzea.

- 2 Udalaren ordezkariak, eta udal barrutian egiten diren ekitaldi publiko guztietan buru izatea.
- 3 Udalbatzaren bilkurak deitu eta horren buru izatea, Toki Erregimeneko legerian eta huteskunderen gaineko legeria orokorrean aurrikusitako kasuetan izan ezik; baita, Gobernu Batzarenak, eta beste edozein udal organorenak, horrela ezarrita dagoenean lege- edo arau-xedapenetan, eta enpate kasuetan, kalitatezko boto bidez erabakitzea.
- 4 Udal obra eta zerbitzuak zuzendu, sustatu eta ikuskatzea, beharrezko aholkularitza teknikoak eskatuz.
- 5 Bandoak ematea.
- 6 Aurrekontuen egitasmoak beharrezko aurrerapenarekin eratzea, Udalak onespina eman diezaion, legalki ezarrita dagoen epean.
- 7 Aurrekontua aldatzeko dossierrei onespina ematea, eskuduntza hori, legalki berari emana daukanean.
- 8 Ekonomia kudeaketaren garapena, onetsitako aurrekontuaren arabera, eta ekitaldi ekonomiko bakoitzean egindako ekintzen berri Udalbatzari kontu ematea.
- 9 Bere eskuduntzen muga barruko gastuak, eta esanbidez, Aurrekontua Egikartzeko Udal Arauan aurrikusitakoak baimendu eta erabakitzea, Aurrekontuko garapen normalari dagokion fakturak onestea, horretarako, beharrezko obligazioak ezagutuz, udal fondoei egiten diren ordainketa guztiak agintzea, eta Udalaren mesedetan, dirusarreraren ezagutza suposatzen duen dokumentuak baimentzea.
- 10 Kreditu operazioak hitzartzea, eskumen hori legalki Udalbatzari ematen ez zaion kasuetan, baldin eta aipatu operazioak Aurrekontuan aurrikusita baleude, eta horren zenbateko metatua, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren barruan, baliabide arruntan %10a gainditzen ez badu; diruzaintzako operazioak salbu, zeinetan, momentu bakoitzean, operazio bizen zenbateko metatuak %15a gainditzen ez duenean egokituko baitaio, hain zuzen, aurreko ekitaldian likidatutako dirusarrak diren bezainbatean.
- 11 Alkateordeak eta Gobernu Batzarreko partaideak izendatu eta kargutik kentzea, askatasun osoz.
- 12 Enplegu publikoari dagokion eskaintza onestea, Aurrekontuan eta Udalbatzak onetsitako plantilan jasotakoari jarraiki, bestalde, pertsonala hautatzeko probetako eta lanpostuak betetzeko lehiaketetako oinarriak onestea.
- 13 Pertsonal guztiaren buruzagitza nagusi karguan jardun, eta gai horretan, Udalbatzaren eta beste Administrazio Publikoenak ez diren eskuduntza guztiak egikaritu, eta bereziki, honako hauek:
 - a) Karrerako funtzionarioen izendapena egitea, Epaimahaiaren proposamenari jarraiki, eta horien kargu uztea, legalki, egokia denean.
 - b) Betegabeko lanpostuei eta izendapen libreko lanpostuei dagozkien lehiaketak deitu, eta horiei ebazpena ematea.
 - c) Lan-legepeko pertsonala kontratatu eta lanetik botatzea, eta horiei postu desberdinak esleitzea, pertsonal horrekin bete daitezkeenak balira. Botatzeraren berri Udalbatzari emango dio, horrek egingo duen lehen bilkuran.
 - d) Behein-behinekoa eta ebentuala den pertsonala izendatu eta kargutik kentzea, indarrean dagoen legearen arabera..
 - e) Korporazioko pertsonal oro saritu eta zigortzea, gaikuntza nazionala duten funtzionarioei buruz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 99 artikuluan, dioenaren kalterik gabe, horrek arautzen baititu Toki Erregimeneko oinarriak.
 - f) Egoera administratiboaren deklarazioa, hala nola, pertsonal ororen jubilazioa.
 - g) Finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainketa osagarrien banaketa egitea; honelakoak dira, adibidez, langile bakoitzari produktibitate osagarria eta hobariak esleitzea.
- 14 Udaltzaingoaren buruzagitzan jardutea.
- 15 Planeamendu orokorraren garapeneko planeamenduko lanabesei onespina ematea, baldin eta horiek ez baleude, esanbidez, Udalbatzari esleitura, hala nola, hirigintzako kudeaketaren lanabesak eta urbanizazioko proiektuak.
- 16 Ekintza judizial eta administratiboak burutzea, eta Alkatearen eskuduntzakoak diren gaietan Udalaren defentsa burutzea, barne sartzen dira hor, beste organo baten esku utzitako eskuduntzak ere, eta urgentziazko kasuetan, Udalbatzen eskuduntzakoak ere, hala ere kasu horretan, Udalbatzari horren berri eman beharko dio, horrek berrespina eman diezaion, egingo duen lehen bileran.

- 17 Bere eskuduntzakoak diren gaiari buruz, kaltegarritasun-deklarazioa, Udalbatzari, proposatzeko ekimena.
- 18 Pertsonalki, eta bere erantzunkizunaren azpian, egoki eta beharrezko diren neurriak hartzeko eskuduntza, hondamendi edo ezbehar publikoen kasuan, eta horiek gertatzeko arrisku larriaren aurrean, hala ere segituan, horren berri Udalbatzari emango dio.
- 19 Udal Ordenantza eta Araudiak betearaztea, eta bere aginpideari egindako desobedientzia-faltak zigortzea, edo aipatu xedapenak haustearren egindakoak, legean ezarritako mugen barruan, baldin eta, ahalmen zigortzailea ez balego beste organo bati esleitu.
- 20 Mota guztietako kontratazioak eta emakidak, horien zenbatekoak Aurrekontuko baliabide arrunten %10a gainditzen ez dutenean, eta ezta ere, inola, 6.000 euro; urteaskotako izaera dutenak ere barne sartuta, horien iraupena ez bada lau urtetik gorakoa behintzat, baldin eta, bere urte guztietako zenbateko metatuak aipatu portzentaia ez badu gainditzen, eta beti ere, Aurrekontuko lehen ekitaldiko baliabide arruntei kasu eginez, eta ezta ere aipatutako kopurua.
- 21 Obra eta zerbitzuetako proiektuei onespena ematea, baldin eta, horren kontratazio edo emakida egiteko eskuduna balitz, eta Aurrekontuan aurrikusik balego.
- 22 Ondasun eta eskubideak erostea, horien balioak Aurrekontuko baliabide arrunten %10a gainditzen ez badu, eta ez badu 3.000 eurotako kopurua gainditzen, hala nola, ondarearen besterentzea, ez badu aipatutako portzentaia eta kopurua gainditzen, hurrengo kasu hauetan:
 - a) Higiezinaren besterentzea, baldin eta Aurrekontuan aurrikusita balego.
 - b) Ondasun higigarrien besterentzea, hortik kenduta hala ere, balio historiko edo artistikoaren deklarazioa, horren besterentzea Aurrekontuan aurrikusita ez balego.
- 23 Lizentziak ematea, baldin eta, alor horretako legeek, esanbidez, eskuduntza hori Udalbatzari edo Gobernu Batzarrari emango ez baliote behintzat.
- 24 Udalaren erabakiak argitara eman daitezen agintzea, eta horiek exekutatu eta betearaztea.
- 25 Eskriturak, dokumentuak eta polizak izenpetzea.
- 26 Udal Korporazioko kideek eta funtzionario eta enplegatuek, beren eskuduntzak

askatasunez garatzeko, zailtasunak dituztenean, oztopo horiek baztertzea.

- 27 Euskararen erabilerari dagokion garapena eta normalizazioa bermatzea, horretarako, beharrezko neurriak hartuz, udal bizitzaren eremu osora zabal dadin.
- 28 Legeek, esanbidez, aitortzen dizkieten gainontzeko eskuduntzak, eta bai Estatuko bai Autonomi Erkidegoko legeek udalari esleitzen dizkietenak, baldin eta, esanbidez, ez badizkiote beste udal organo bati esleitzen.

40. Artikulua. Alkateak, gobernu-organoen kudeaketari buruzko Kontroleko Batzordeari, laburki, kontu emango dio, hartutako ebazpenen gainean, hark ezar lezazkeen terminoen arabera, hala nola Udalbatzari, horretarako errekerimendua egiten zaionean.

41. Artikulua. 1. Alkateak eskuordetu dezake bere eskuduntzen egikaritzea, hurrengo hauek kenduta:

- a) Gobernu Batzarra eta Udalbatza deitu, eta horietan buru izatea.
- b) Enpateak kalitatezko botu bidez erabakitzea.
- c) Kreditu operazioak hitzatzea.
- d) Pertsonal guztiaren buruzagitza nagusia.
- e) Funtzionarioak zerbitzutik apartatzea.
- f) Lan-legepeko pertsonala botatzea.
- g) Araudi honetako 39. artikuluko 1, 5, 15, 16, 17 eta 18 zenbakietan adierazitakoak.

2. Hala ere, Alkateak, 39. artikuluko 15. zenbakian ezarritako eskuduntza, Gobernu Batzarraren esku utzi ahal izango du.

3. Eskuduntzen eskuordetza, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta administrazio prozedura arruntaren gainean indarrean dagoen legerian aurrikusitako eran, egingo da, eta hor adierazitako ondorioak eukiko ditu.

4. Alkateak, aipatutako mugen barruan, bere eskuduntzei buruzko egikaritzea, Gobernu Batzarraren edo organo horretako kideen gain eskuorde dezake, azken horiek Arloko Zinegotzi Ordezkariek deitutako dira, eta horrek ez dio kalterik eragiten bestalde, berariazko eginbeharretarako, eskuordetza bereziak egiteari, edozein Zinegotziren gain, nahiz eta, azken kasu horretan, Batzar harteko kide ez izan.

5. Ordezkaritza generikoek arlo edo gai zehatz bat edo gehiago har dezakete barne, eta bai, dagozkion zerbitzuak zuzentzeko gaitasuna, bai, orokorrean, hori kudeatzeko gaitasuna har dezake barne, hor sartzen delarik baita, ebazpena emateko ahalmena, hirugarrenei eragin diezaioketen egintza administratiboen bidez. Hala ere, hirugarrenei eragin diezaiekeen egintza administratiboak egiteko ahalmena ez da, inoiz, inplizituki emana izan dela ulertuko, horrek, izan ere, Alkatearen esanbidezko adierazpena beharko baitu.

6. Artikulu honetako 4. zenbakian aipatutako ordezkaritza bereziak hiru motatakoak izan daitezke:

- a) Proiektu edo gai zehatz bati buruzkoa. Kasu horretan, ordezkaritzaren eraginkortasuna, zeinak Alkateak eskuorde ditzakeen ahalmen guztiak euki ahal izango dituen, baita hirugarrenei eragin diezaiekeen egintzak egitekoa ere, aipatu proiektu edo gaiaren iraupen-denborara mugatuko da.
- b) Zerbitzu zehatz bati buruzkoa. Kasu horretan, ordezkaritza, zerbitzu horri dagozkion barne-zuzendaritza eta horren kudeketa egiteko da, baina ezingo du barne hartu, hirugarrenei eragiten dien egintza administratibo bidez ebazteko eskuduntza.
- c) Barruti edo auzo bati buruzkoa. Alkateak eskuorde ditzakeen eskumen guztiak har ditzake barne, baina ordezkaritza hori, lurralde eremura mugatuta, egongo da. Baldin eta, ordezkaritza mota hauek arloko ordezkaritza generikoekin batera emango balitz, Alkateak, kasu horretan, egokiena litzatekeena erabakiko luke, gobernuaren batasuna eta udalerriaren kudeaketa bermatzeko helburuz.

7. Ordezkaritza generikoak, ahal den neurrian, Udaleko zerbitzu administratiboen banaketara egokituko dira.

8. Ordezkaritza guztien, eta horiei buruzko aldaketa eta baliogabetze guztien berri, Udalbatzari, emango zaio, horrek egin lezan lehen bileran.

LAUGARREN KAPITULUA.

ALKATEORDEEI BURUZ.

42. Artikulua. 1. Alkateordeak, Alkateak izendatuko ditu eta horrek kenduko ditu kargutik, askatasun osoz, Gobernu Batzarreko kideen artetik.

2. Izendapenak eta kargutik kentzea Alkatearen ebazpen bidez egingo dira, eta horren berri, Udalbatzari, emango zaio, horrek egin lezan lehen bileran, eta halaber, izendatuei hori jakinaraziko zaie, modu pertsonalean, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, horrek hala ere ez dio kalterik eragiten, Alkateak ebazpena sinatu ondorengo biharamunean, indarrean egoteari, horretan, beste gauzaren bat ez bada erabakitzen behintzat.

3. Alkateordeen kopuruak ezingo du Gobernu Batzarreko kideen kopurua gainditu.

4. Alkateorde izaera galdu egiten da, bai kargutik kentzean, bai, esanbidez, horri uko egiten zaionean, zeina idatziz agertu behar den, bai Gobernu Batzarreko kide izaera galtzen denean.

43. Artikulua. 1. Alkateordeei dagokie, kargu horien jabe diren heinean, Alkatearen ordezkotza, izendapenaren ordenari jarraiki, eta horrek haren funtzio guztiak bere gain hartuko lituzke, hain zuzen, eskumenak egikaritzea eragotzi lezaiokeen ausentzia, gaisotasuna edo ezintasuna gertatzen den kasuetan, eta baita Alkate funtzioak burutzea Alkatetza bete gabe legokeen kasuan, Alkate berria karguaz jabetu bitartean.

2. Ausentzia, gaisotasuna edo ezintasuna ematen den kasuetan, legokion Alkateordeak ezingo lituzke Alkateraren funtzioak bere gain hartu, esanbidezko eskuordetzarik ez balego.

3. Aurreko zenbakian esandakoaz gain, hala ere, Alkateak, ordezkaritzarik eman gabe, Udal barrutitik kanpo emango balu hogeita lau ordutik goragoko denbora, edo aurrikusi ezineko arrazoiengatik ezinezkoa izan balitzaio ordezkaritza hori ematea, kasu horretan, funtzio guztietan, legokion Alkateordeak ordezkatuko du, baina horren berri, Korporazio osoari eman beharko dio, talde politikoaren bozeramaileen bidez.

4. Halaber, bilkura bat egiteko garaian, baldin eta, Alkateak partehartzeari uko egin beharko balio, puntu zehatz bati legokionez, bilkura horretako mahaiburu, automatikoki, legokion Alkateordeak bere gain hartuko du, justu, bozketa eman ledin arte, hain zuzen.

5. Alkatea ordezkatzan den kasuetan, horren ausentzia edo gaisotasuna dela eta, horri dagozkion funtzioak hartzen dituen Alkateordeak ezingo ditu hark emandako eskuordetzak ezeztatu, 41. Artikuluan erabakitakoaren arabera.

BOSTGARREN KAPITULUA.

UDALBATZARI BURUZ.

44. Artikulua. Udalbatzak zinegotzi guztiak hartzen ditu barne, eta Udalburu Alkatea izango da.

45. Artikulua. Udalbatzari dagozkio, behin hori eratzen denean, hauteskunde legerian eta horrekin bat datorren legerian ezarritako arauari jarraiki, hurrengo eskumenak:

1. Udal gobernuko organoen kontrola eta fiskalizazioa.
2. Udalaz gaindiko erakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak; udal barrutiaren aldaketa; udal berriak sortu eta haiek ezabatzea, eta era berean, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 45. artikuluan adierazitako erakundeak; deskonzentrazioko erakundeak sortzea; udalerriaren hiriburutza aldatzea, eta horren edo Erakunde haien izena aldatzea, bere bandera, ikurra edo harmarria aukeratu edo aldatzea.
3. Planeamendu orokorraren hasierako onespina, eta hirigintzako legerian aurikusitako planen eta ordenazioko gainontzeko instrumentuen udal izapidegintzari amaiera ematen dionari onespina ematea.
4. Udalaren bai Araudi Organikoa, bai Ordenantzak, bai Araudiak onestea, horiek aldatzea eta indargabetzea.
5. Zerga izaera duten baliabide propioak zehaztea; Aurrekontuak onestea, eta

baita horren aldaketa, eskumen hori, legalki, esleiturik daukanean; bere eskumenekoak diren gastuak baimentzea eta erabakitzea, eta kontuak onestea; hori guztia, Toki Ogasunak arautzen dituen arautegian erabakitakoari jarraiki.

6. Zerbitzuen kudeaketaren gaineko modua onestea, eta udalekotutzeko dosierrari onespina ematea.
7. Beste Herri Administrazio publikoek egindako eskumenen gaineko eskuordetza onartzea.
8. Pertsonalaren plantilari eta lanpostuen zerrendari onespina ematea, eta funtzionarioen ordainketa osagarri finkoak eta aldizkakoak zehaztea, eta pertsonal ebentualaren kopurua eta erregimena zehaztea.
9. Egintza administratiboak eta judizialak burutzea, eta Udalbatzaren eskumenekoak diren gaietan Korporazioaren defentsa egitea.
10. Udalaren egintzei buruz, kaltegarritasuna aitortzea.
11. Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
12. Kreditu operazioak hitzartzea, horien zenbateko metatua, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren barruan, Aurrekontuko baliabide arrunten %10tik gorakoa denean –diruzaintzakoak direnean izan ezik, horietan, momentu bakoitzean, metatutako eragiketa bizien zenbatekoa, aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten %15a gainditzen dutenean izango baita–, hori guztia, Toki Ogasunei buruzko arautegian erabakitakoaren arabera.
13. Mota guztietako kontratazioak eta emakidak, horien zenbatekoak Aurrekontuko baliabide arrunten %10a gainditzen badute, eta edozein kasutan, 6.000 euroko edo gehiagokoak; halaber, urteaskotako izaera dutenak, baldin eta lau urtetik gorakoak direnean, eta iraupen txikiagoko urteaskotakoak, urte guztietako zenbateko metatuak aipatu portzentaia gainditzen badu, beti ere, Aurrekontuko lehen ekitaldiko baliabide arruntei kasu eginez, eta edozein kasutan, zenbaki honetan

adierazitakoa baino kopuru handiagoa denean.

14. Obra eta zerbitzuetako proiektuei onespina ematea, baldin eta, horren kontratazio edo emakida egiteko eskumena Udalbatzarena balitz, eta Aurrekontuan, oraindik ere, aurrikusi gabe balego.
15. Ondasun eta eskubideak erostea, horien balioak Aurrekontuko baliabide arrunten %10a gainditzen badu, eta edozein kasutan, 3.000 eurotatik gorakoa denean, eta baita ondarezko besterentzeak ere, hurrengo kasu hauetan:
 - a) Ondasun higiezinak direnean, eta ondasun higigarriak izanik, balio historiko edo artistikoaren deklarazioa dutenean, eta Aurrekontuan aurrikusi gabe baleude.
 - b) Aurrekontuan aurrikusita baleude, eta ondasunak erosteko adierazten diren portzentaia eta kopuru berak gainditzen badituzte.
16. Alkateari egin lezaiokeen zentsuramozioaren gaineko bozketa, eta horrek berak planteatzen lezaiokeen konfidantza gaiaren gainekoa, publikoa izango da eta eta zinegotzi bakoitzari bere izenez deituta egingo da, eta hori bestalde, hauteskunde lege orokorrean erabakitakoari jarraiki, egingo da.
17. Udalbatzari dagozkion besteak, horren onespenerako gehiengo bereziak behar direlako arrazoiz.
18. Legeek aitortzen dizkioten gainontzekoak.

46. Artikulua. Udalbatzak bere eskumenen egikaritzea Alkatearen eta Gobernu Batzarraren esku utzi dezake, aurreko artikululuko hurrengo zenbakietakoak izan ezik, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 11, 16 eta 17.

SEIGARREN KAPITULUA.

GOBERNU-BATZARRARI BURUZ.

47. Artikulua. 1. Gobernu Batzarrak barne hartzen ditu, batetik Alkatea, zeina mahaiburu izango den, eta berak, askatasunez, batzorde horretarako izenda ditzakeen kideak.

2. Alkateak, Gobernu Batzarreko kide bezala izenda ditzakeen zinegotzien kopuruak ezingo du izan, inolaz ere, Korporazioko kideen kopuru legalaren herena baino handiagoa. Konputua egitekoan, bestalde, ez dira kontuan hartuko, zinegotzi guztien kopurua hiru zenbakiaren bidez zatitzetik ondorioztatu daitezkeen hamarrenak.

3. Alkateak kargutik kendu dezake, askatasun osoz, edozein momentuan, Gobernu Batzarreko edozein kide.

4. Izendapenak eta kargutik kentzeak, Araudi honetako 42. artikuluko 2. zenbakian ezarritako formalitate guztiak betez egingo dira.

5. Ebazpen bakar batean eman ahal izango dira, Gobernu Batzarreko kide gisa egiten den izendapena eta eskumenen eskuordetza, hain zuzen, Araudi honetako 41. artikuluan aipatzen dena.

48. Artikulua. 1. Gobernu Batzarrari dagokion berezko eskumena da, eta hori ezin da eskuordetu, Alkateari laguntza eskaintzea, bere eskumenak egikaritzeko xedean.

2. Halaber, Gobernu Batzarrak, bai Udalbatzak bai Alkateak eskuorde lezaizkiekeen eskumenak egikaritzeko dituen, hala nola, legeek, esanbidez, ezagun lezaizkioketenak.

III. TITULUA

UDALAREN DERRIGORREZKO ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA.

LEHEN KAPITULUA.

UDALBATZAREN FUNTZIONAMENDUA.

Atala Bilkurak egin aurretik eman behar diren baldintzei buruz.

49. Artikulua. Udalbatzaren bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ezohikoak, eta presazko izaera duten ezohikoak.

50. Artikulua. 1. Ohiko bilkurak dira, ezen, beren aldizkotasuna aurrikusita daukaten haiek. Aldizkotasun hori, Udalbatzak berak egingo duen ezohiko bilkuran, hartutako erabaki bidez, ezarriko da, zeina, Udalbatza eratzeko bilkuraren ondorengo hogeita hamar egunen barruan, egin beharko den, eta ezingo da luzatu, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 46.2.a) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketaren arabera, adierazten den hilabeteko mugatik.

2. Ezohiko bilkurak Alkateak deitutako haiek dira, bai bere ekimenaren bidez, edo bai, Korporazioko kideen kopuru legala kontuan izanik, gutxienez, laurdenaren eskariz. Azken kasu horretan, ezohiko bilkurak hurrengo arau hauen arabera egin beharko dira:

- a) Zinegotzi batek ezingo du ezohiko bilkurarik, hiru bider baino gehiagotan, eskatu.
- b) Eskaria Alkaterari zuzendutako idatziz egin beharko da., horretan, hori eragiten duten arrazoia edo arrazoiak agertuko dira, eta hori eskatzen duten guztiek, pertsonalki, sinatu egin behar dute.
- c) Idatzian barne hartzen diren gaien zerrendak ez du Alkatearen ahalmena murrizten, Eguneke gai-zerrendako puntuak zehaztekoan, nahiz eta, proposatutako gaien bat kanpoan utziko balitz, hori arrazoitu egin beharko litzatekeen. Eskumen horretatik kanpo geratzen da, hala ere, Alkate berari aurkeztutako zentsura-mozioa denean, zeina, edozein modutan, hauteskunde legeria orokorrean xedatutakoak arautuko duen.
- d) Ezohiko bilkura ezingo da hamabost lanegun baino gehiago atzeratu, hura eskatu zenetik hasita.
- e) Tratatu beharreko gaiak ezingo dira gai gehiagoko ohiko edo ezohiko bilkurako gai-zerrendara inkorporatu, ez badute, esanbidez, deialdiaren eskatzaileek hori baimentzen.
- f) Alkateak ez balu ezohiko bilkura atal honetako d) letran adierazitako

hamabost eguneke epe barruan deituko, Udalbatzaren osoko bilkura automatikoki deitua geldituko da, aipatu epea amaitu ondorengo biharamunetik hasi, eta hurrengo hamargarren laneguneke eguerdiko hamabietan, zeina, Idazkariak jakinaraziko dien Korporazioko kide guztiei, aipatu hamabost eguneke epe hori bete ondorengo biharamunean.

- g) Alkatearen ausentzia ematen bada, eta baita, legearen arabera, horren ordezkoa litzakeenarena, Udalbatza baliozkotasunez eratua geratuko da, baldin eta Korporazioko kideen kopuru legalaren herena biltzen bada; quorum hori, bilkura osoan, mantendu beharko da, eta kasu horretan, hor daudenetatik adinez nagusiena denak jardungo du mahaiburu.

51. Artikulua. 1. Presazko ezohiko bilkurak direla esan behar da, Alkateak deitu dituenak, baino tratatu beharreko gaiaren edo gaien urgentzia kontuan izanda, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2b) artikulua eskatzen dituen bi laneguneke aurrerapenarekin, gutxienez, deitzerik izan ez denean.

2. Kasu horretan, gai-zerrendako lehen puntu bezala, Udalbatzak urgentzia horri buruzko pronuntziamendua egitea sartu beharko da. Udalbatzak ez balio urgentzia horri onespenez emango, jarraian, bilkura bertan behera utziko da.

52. Artikulua. 1. Alkateari dagokio Udalbatzaren bilkurak deitzea, zentsura mozioari buruz hauteskude lege orokorrean erabakitakoa izan ezik, edo Araudi honetako 50.2.f) artikuluan erabakitakoa aplikagarri suertatzen dena izan ezik.

2. Bilkurako deialdiarekin batera Gai-zerrenda joango da, non, tratatuko diren gaiak agertuko diren, beharrezko zehaztasunez, eta aurreko bilkuretan jasotako akten zirriborroak, zeinak osoko bilkuran onetsiak izan beharko duten.

3. Deialdiaren jakinarazpena, gai-zerrenda eta akten zirriborroak, hurrengo arauen arabera, jakinarazi beharko dira:

- a) Izaera orokorrearekin, deialdi hori, zinegotziei, beren etxebizitzetan entregatuz, edo talde politikoen bozeramaileari, edo horiek izenda dezaketen beste zinegotzi bati entregatuz.
- b) Gainera, urgentziazko osoko bilkuren kasuan, hori jaso dela egiazta daitekeen beste edozein bidez egin behar da, hala nola, telefaxa, telegrama, posta elektronikoa, eta azkanik, baita, telefonoz ere; azken bi bideak erabiltzen direnean, Idazkariak jakinarazpen hori adieraziko duen diligentzia egingo du. Udalbatzako kide guztiak behartuta daude, Idazkaritza Orokorrean, kontakturako telefono bat ematera, eta euki ezkerro, baita posta elektrikoaren beren helbidea ere.

4. Deialdiaren eta bilkuraren artean, gutxienez, bi lanegun pasa beharko dute, ez badira behintzat, presazko ezohiko bilkurak.

53. Artikulua. Bilkura baterako deialdiak, hori ohikoa edo ezohikoa izan daiteke, dossier baten irekitzea ekarriko du, eta hor honako hauek azaldu behar dute:

- a) Idazkaritza Nagusiak prestatu, eta Alkatearen esku jarriko dituen dossierren zerrenda, horiek behin amaituta egon ondoren.
- b) Alkateak zehaztuko duen eguneko gai-zerrenda.
- c) Korporazioko kideei eman zaizkien jakinarazpenen egiaztagiriak. Bere kasuan, telefono bidezko jakinarazpenari dagokion edo posta elektronikoa bidez bidalitakoari dagokion diligentzia.
- d) Udaletxeko ediktu-taulan iragarkiaren kopia.
- e) Aktaren zirriborroa, hain zuzen, horren laburpena.
- f) Estatuko edo Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioetara bidalitako ofizioen kopiak, hartutako erabakiei buruzkoak, hori legalki beharrezkoa denean.
- g) Erabakiak ediktu taulan argitaratzea.

54. Artikulua. 1. Bilkuretako gai-zerrenda Alkateak zehaztuko du Idazkari Nagusiaren laguntzarekin. Halaber, Gobernu Batzarreko kideei laguntza eskatu ahal izango die, eta egoki iruditu ezkerro, talde politikoen bozeramaileak kontsultatu ahal izango ditu.

2. Eguneko gai-zerrendan barne sartu ahal izango dira, bakarrik, aurretik, gaiaren arabera, dagokion Batzorde Informatiboaren irizpena edo txostena duten gaiak, edo horri kontsultatu zaizkionak, hala ere, salbuetsita daude aurretiazko izapide horretatik, mozioak, eta eskari eta galderak.

3. Alkateak, urgentziazko inguruabarrengatik, Gai-zerrendan barne sartu ahal izango ditu, dagokion Batzorde Informatiboak informatu gabeko gaiak, hori bere ekimenez edo bozeramaile baten ekimenez egin dezake, hala ere, egokiro arrazoitu beharko du inguruabar hori, baina kasu horretan, gai horiei buruz ezingo da inolako erabakirik hartu, Udalbatzak, eguneko gai-zerrendan, gai horiek sartzea berretsi arte.

4. Ohiko bilkuretan, Udaleko gainontzeko organoen kontrolera dedikatutako zatiak, eduki propioa euki behar du, eta zati erabakitzailetik desberdindua egon behar du.

55. Artikulua. Deialdian barne sartu gabeko gaiei buruz, ezohiko bilkuretan hartutako erabakia, bete-betean, deuseza izango da zuzenbidean, eta baita, ohikoetan, horri dagokion gai-zerrendan barne sartu gabeko gaiei buruz har daitezkeenak ere, ez bada behintzat, aurretiaz urgentziazko deklarazio berezia egiten, hori Udalbatzak egin behar du, gehiengoaren aldeko boto bidez, hain zuzen, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 47,2 artikuluan aurrikusitako gehiengo bidez.

56. Artikulua. 1. Eztabaidarako, eta bere kasuan, bozketarako balio izan behar duen eguneko gai-zerrendan barne hartutako gaiei buruzko dokumentazio guztia, Korporazioko kideen esku egon behar du, deialdiko egun beretik, Idazkaritza Nagusian.

2. Korporazioko edozein kidek, beraz, aztertu ahal izango du dokumentazio hori, eta baita, hor barne dauden dokumentu zehatzen kopiak lortu

ere, baina jatorrizkoak ezingo dira, inolaz ere, agerian jarrita dauden toki horretatik atera.

57. Artikulua. Udalbatzak bere bilkurak Udaletxeko Bilkura Aretoan egingo ditu, ezinbesteko kasuetan izan ezik, izan ere kasu horretan, deialdiaren bidez edo Alkateak emandako ebazpen bidez, zeina, Araudi honetako 52.4b) artikuluan aurrikusita bezala, aurretik emana eta Korporazioko kide guztiei jakinarazia izan behar duen, beste eraikin edo lokal bat antolatu ahal izango da horretarako. Edozein modutan, inguruabar hori aktan jaso beharko da.

2. Atala. Bilkuraren garapenari buruz.

58. Artikulua. Bilkura orok, dela ohikoa dela ezohikoa, ekitaldi batasunari dagokion printzipioa errespetatu beharko du, eta hasitako egun berean amaitu dadin ahalegindu behar da. Bilkura eguneko hogeita lauetan, Gai Zerrendako gai guztien eztabaida eta bozketa, oraindik, ez balitz amaitu, Alkateak bilkura altxa egingo du, eta hurrengo egunean ezohiko bilkurarako deialdia egingo du, non erabaki gabeko gai guztiak sartuko dituen, hori bestalde, deialdi berriaren ondorengo bi lanegunera, egingo da.

59. Artikulua. Bilkura egiten diharduen bitartean, Alkateak etenaldiak egitea erabaki dezake, bere zentzuzko iritzia arabera, taldeek bere barnean delibera lezaten, eztabaidan legokeen gaiaren gainean, edo eztabaidetan atsedena hartzeko helburuz.

60. Artikulua. Udalbatzaren bilkurak jendaurrekoak dira. Hala ere isilpekoa izan daiteke, Konstituzioko 18.1 artikuluan adierazitako herritarren intimitateari eragin lezaiokeen gaien eztabaida eta bozketa ematen denean, eta horrela erabakitzen bada gehiengo absolutuz. Horrelako gairik balego, eguneko gai-zerrendaren hasieran jarriko dira, aurreko bilkurako Aktaren onespenera dagokion puntuaren jarraian.

61. Artikulua. 1. Bilkuretara joaten den jendeak ezingo du horietan parte hartu, eta ez da baimenduko ere,

atseginezko edo desatseginezko adierazpenik, eta Alkateak, beharrezko izan ezker, pertsona horren edo horien kanporatzea agindu dezake, baldin eta edozein arrazoiengatik bilkuraren ohiko garapena eragotzi edo oztopatuko balu edo balute, eta indar publikoaren laguntza eska dezake, edo erabaki dezake baita, bilkurari jarraipena ematea edo hori etetzea.

2. Alkateak bilkura etetzea erabakiko balu, hori altxa egingo litzateke jarraian, eta Alkateak ezohiko bilkurarako deialdia egingo du, erabaki gabe gelditutako gaien tratamendurako, hain zuzen, 58. Artikuluan adierazitako epeetan.

3. Aurrekoaren kalterik gabe, Alkateak eskari eta galdera txanda bat ezarri dezake, bilkurara joandako jendearentzat, Araudi honetan ezarritako terminoen arabera, baldin eta haiek ez badute bilkuraren funtzionamendu egokia eragozten.

62. Artikulua. Korporazioko kideek, Bilkura Aretoan, bere taldekideekin batera eseriko dira. Taldeen kokapenaren ordena Alkateak erabakiko du, Bozeramaileei entzun ondoren, eta lehentasuna izango du, boto gehien jasotako zerrendako kideek osatzen duten taldeak, eta horrela, hurrenez hurren. Edozein modutara, udalbatzako kideen kokapenak, boto ematea eta horien zenbaketa erraztu behar ditu.

63. Artikulua. 1. Udalbatza baliozkotasunez eratua egon dadin, Korporazioko kide kopuru legeletik herena bildu beharko da; quorum hori bestalde, bilkuraren iraupen osoan, mantendu beharko da.

2. Edozein kasutan, beharrezkoa da, Alkatearen eta Idazkari Nagusiaren asistentzia, edo legalki, horien ordezkoea, hala nola Korporazioko Kontuhartzailearena, edo legalki horren ordezkorena, salbu eta, azken kasu horretan, Alkateak egiteko horretatik libratzen badu, tratatu beharreko gaiak bere zereginetik guztiz bestelakoak direko arrazoiz.

3. Lehen deialdian, artikuluko honetako 1. zenbakian erabakitakoaren arabera, ez balitz nahiko quorum-ik egongo, ulertzen da, bilkura, automatikoki, handik bi egunetara, ordu berean, deitua geratzen dela. Baldin eta orduan ere ez balitz nahiko quorum-ik lortuko, Alkateak deialdia indarririk gabe utziko du, eta gai-zerrendan barne sartutako gaien azterketa, hortik aurrera egingo den lehen bilkurara arte atzeratuko da, dela hori ohikoa dela ezohikoa.

Atala. Eztabaidei buruz.

64. Artikulua. 1. Bilkurari hasiera emateko, Alkateak, Korporazioko kideei galdetuko die, ea baten batek, aurreko bilkurako aktari oharren bat egin nahi liokeen; akta, bestalde, deialdiarekin batera banatuko da. Oharrak ez balego, onetsia izan dela ulertuko da, eta sinatzeari ekingo zaio. Oharrak egongo balitz, eztabaida daitezke, eta egoki liratekeen zuzenketak erabakiko dira. Zuzenketa horiek, hala ere, inolaz ere ezingo dute hartutako erabakien edukia aldatu, eta bakarrik, egitezko okerrak edo oker materialak zuzendu ahal izango dira. Akta bakoitzean, aurreko bilkurako aktaren irakurketa eta onespenez jardutean, egindako oharra eta zuzenketak jasoko dira. Baldin eta, zinegotzi batek egindako oharren bat balitz, horrela jasoko da. Baldin eta interesatuaren eskariz ohar horri buruzko bozketa egingo balitz, eta aktaren zuzenketa bezala aurrera aterako balitz, horrela jasoko da, eta zuzendua suertatu den erabakiaren alboan ohar bat jarriko da, zeinak, akta horren onespenez hurrengo bilkurara igorriko duen.

2. Jarraian, eta gaiak atea itxita eztabaidatu beharko liratekeen kasua kenduta, hori Araudi honetako 60. Artikuluan erabakitakoaren arabera, beste gobernu organoen ebazpenak berresteari buruzko atala aztertuko da, hala nola, Udalbatzak ezagutu behar dituen erabaki edo ebazpenen berri ematen duen atala.

3. Jarraian, beste gaiak buruzko eztabaida eta bozketari ekingo zaio, Eguneko Gai Zerrendan agertzen diren ordenan.

4. Hala ere, aurreko zenbakian erabakitakoaz gain, Alkateak gaien ordena alda dezake, edo gai bat erretira dezake, horren onespenez gehiago berezia eskatuko balu, eta hori ezingo balitz, aurrikusitako unean, gai-zerrendaren arabera aurrikusitakoan, lortu.

5. Ohiko bilkuretan, Eguneko gai-zerrendan barne sartutako gaien azterketa amaitutakoan, eta eskari eta galdera txandarekin hasi aurreko unean, Alkateak galdegingo du, ea talde politikoen batek, Udabatzari, presazkoa jotzearen, gai-zerrendan agertzen ez den, eta eskari eta galdera puntuan tokirik ez duen gairen bat proposatu nahi dion. Horrela izango balitz, hori proposatzen duen taldeko bozeramaileak, horri buruzko eztabaidaren egokitasuna arrazoituko du. Bozketako emaitza baiezkota izango balitz, hor leudekeenetatik gehiago absolutuz, Araudi honetako 64. artikuluan

eta hurrengoetan aurrikusitako prozedura jarraituko da. Zenbaki honetan xedatutakoa, ez da aplikagarri izango, inola ere, zentsura-mozioaren kasuan, zeina hauteskunde lege orokorrean xedatutakoak arautuko baitu.

65. Artikulua. 1. Edozein zinegotzik eskatu ahal izango du, eztabaidaren unean, Gai-zerrendan barne sartuta legokeen dossieren bat erretiratu izan dadila, modu horretan, dossier horri zenbait dokumentu eta txosten lotzeko xedez, eta baita eska dezake, dosierra mahai gainean gera dadila, eta horren eztabaida hurrengo bilkurara arte atzera dadila. Bi kasuetan, eskaria bozkatu egingo da, eztabaida amaitu ostean, eta gaiaren edukari buruzko bozketa egin aurretik. Baldin eta gehiago arruntak eskariaren alde bozkatuko balu, ez da proposamenik bozkatuko.

2. Baldin eta, Gai-zerrendan barne sartu gabeko gaia izango balitz, eta derrigorrezkoa izango balitz horri buruzko Idazkariaren edo Kontuhartzailearen txostena, eta titularitatea luketenek edo horien ordezkoez ezingo balute une horretan bertan hori eman, Alkateari eskatu beharko diote gai horren azterketa atzera dadila, eta mahai gainean gera dadila hurrengo bilkurara arte. Baldin eta eskari horri kasurik ez balitzaio egingo, Idazkariak, esanbidez, aktan jasoko du inguruabar hori.

3. Baldin eta, Gai-zerrendan barne sartutako gaiak balira, eta derrigorrezkoa ez balitz Idazkariaren edo Kontuhartzailearen txostena hori buruz, baina hala ere, Alkateak edo Korporazioko kideen kopuru legelaren herenak “in voce” hori eskatuko balie, eskaria jaso dutenek, baldin eta, ezingo balute txostena, une horretan bertan, eman, Alkateari eska lezaioke gaia mahai gainean gera dadila. Baldin eta aipatu eskariari ez balitzaio kasurik egingo, inguruabar hori jasoko da, baina, eskaria jaso dutenek ez daukate “in voce” informatu beharrik une horretan.

4. Aurreko 2 eta 3 zenbakietan azaltzen diren kasuetan, baldin eta erabakia atzeratu egiten bada gaia hobeto aztertzeko xedez, horri buruzko txostenak, gehienez, hamar eguneko epean egin beharko dira.

66. Artikulua. 1. Gai-zerrendako puntu bakoitzaren azterketari, puntu horri buruzko enuntziatua irakurriaz emango dio hasiera Alkateak. Jarraian, talde politiko desberdinetako bozeramaileei galdegingo die ea gaiari onespina ematen zaion, Udaltzaban talde bakoitzak duen ordezkariaren arabera, txikienetik hasita.

2. Edozein talderen eskariz, oso-osorik irakurri beharko dira, hori hobeto ulertzeko xedez komenigarria jotzen bada, bai dosierreko bai eman diren txostenenetako bai Batzordearen irizpeneko zatiak.

3. Batzordekide guztiek, bere adostasuna agertuko balute adierazpen konbentzionalen bidez, edo Alkateak, bozketa egiteko, egindako proposamenaren aurrean, zinegotzietatik inork ez balu eragozpenik jarriko, gaia ahobatez onetsia geratuko da, bozketa egin beharrik gabe, eta hori Alkateak, esanbidez, adieraziko du.

4. Baldin eta zinegotziren batek bere aurkakotasuna adieraziko balu desadostasuneko adierazpenaren bidez, Alkateak hori buruzko eztabaida edo bozketa aginduko du, egokitasunaren arabera.

67. Artikulua. 1. Eztabaidaren beharra izango balitz, parte hartzea, Alkateak bideratuko du hurrengo arau hauen arabera:

- a) Hitza, bakarrik, Alkateak baimena eman ondoren hartu ahal izango da, eta bestalde, Alkateak isiltzeko agindua ere eman lezaioke bati, baldin eta ikusten badu, haren hizketaldiaren helburua, besteei hitza galeraztea edo gaiari buruzko bozketa galeraztea dela.
- b) Zinegotziek, beren mintzaldietan, ezingo diote, bilkura aretoan egon daitekeen entzulegoari, hitzegin. Bestalde, debekatua dago, beren karguaren egikaritzan, Udaltzako kideen adierazpen askatasuna galerazi edo gutxietsi lezakeen edozein jokaera edo ekintza agertu edo egitea.
- c) Eztabaidari hasiera, proposamena azaldu eta hori zurutiaz emango zaio, hori bestalde, gaiaren arabera, eskumena duen Arloko Ordezkariak egingo du, edo bestala irizpena eman

duen Batzorde Informatiboko kide batek, edo, gainontzeko kasuetan, proposizioa edo mozioa izenpetzen duen Udaltzako kideren batek. Azalpenaren gehieneko epea bost minutukoa izango da, ez badu behintzat Alkateak, gaiaren garrantzia edo zailtasunagatik edo zurigarriak diren beste arrazoeingatik, epe luzeago bat baimentzen.

- d) Jarraian, talde desberdinek lehen txanda batean hitza hartu ahal izango dute, beren ordezkariaren arabera, txikienetik hasita. Alkatea arduratuko da, mintzaldi guztiak iraupen beretsua euki dezaten, zeina ezingo den luzatu aurreko letran adieerazitakotik.
- e) Norbaitek bere burua aipatutzat jotzen badu mintzaldiren batean, Alkateari eskatu ahal izango dio, txanda bat eman diezaiola aipatua izan delako; hori, bestalde, laburra eta zehatza izango da, eta ezingo du hiru minututik gorako iraupena izan.
- f) Talderen batek eskatuko balu, bigarren txanda bati ekingo zaio, zeinak aurreko letran adierazitako epea izango duen. Hori agortutakoan, Alkateak eztabaida amaitutzat eman dezake.
- g) Hitza duenari ezingo dio inork etenaldirik egin, Alkateak salbu, horrek ohartarazi bailezaioke edo eztabaidako gaira atxikitzeko eska bailezaioke.

2. Udaltzako kideek, eztabaidako edozein momentutan, hitza eska dezakete prozedurako arazo bat planteatzeko, eta horretarako arrazoi gisa, aplikatzea eskatzen den Araudi honetako agindua edo araua aipa dezakete. Alkateak egokien litzatekeena erabakiko du, eta erabaki horregatik, ezingo da inolako eztabaidarik sortu. Baldin eta eztabaidagai den arazo horri ez balitzaio kasu egingo, hori eskatu duen zinegotziak adierazi ahal izango du, aktan jaso gera dadin, bere protesta formal eta abegikorra, modu horretan, ezeztapen horren aurka, egoki liratekeen helegite administratibo edo judizialak jarri ahal izateko.

3. Idazkaritzako eta Kontuhartzailtzako arduradun diren funtzionarioek, edo legalki horien ordezkoez, esku har dezakete Alkateak horrela eskatzen dietenean, aholkularitza tekniko emateko edo kontzeptuak argitzeko. Funtzionario horiek,

baldin eta ulertuko balute, gai baten eztabaidan, horren legalitatea edo ondorio ekonomikoa – finantzarioa eta aurrekontukoa- zalantzazkoa izan daitekeela, Alkateari hitza eska diezaioke Udalbatzari aholkua emateko xedez.

68. Artikulua. 1. Alkateak Udalbatzako edozein kide ohartarazi dezake, hurrengo arrazoen batengatik:

- a) Udalbatzari edo horko kideei zor zaien begirunearen aurka hitzak esan, kontzeptuak adierazi edo keinu iraingarriak egitean, edo beste edozein pertsona edo Erakundeen aurka, dela publikoa dela pribatua.
- b) Etenaldiak sortzean, edo beste edozien eratan, bilkurako ordena tratatzean.
- c) Batek hitza hartu nahi duenean, nahiz eta hori ez zaion emana izan, edo hitza erretiratu ostean.

2. Bilkura berean, hiru bider ohartarazi ondoren, bigarreanean gainera, hirugarren ohartarazpenak ekarri lezaiokeen ondorioa aipatuz, Alkateak eska diezaioke, ezen, bilkurako gela utzi dezala, eta bestalde, egoki liratekeen neurriak har ditzake kanporatze hori benetan eman dadin.

69. Artikulua. 1. Udalbatzako kide guztiek uko egingo diote politika-asmoa luketen agerraldiak egiteari, dela edozein objektu bidez, dela idatzi, argazki, grafismo edo zeinu bidez, zeinak iraingarriak direla uler badaiteke Udalbatzako beste kideentzat, edo horietako batzuentzat, edo besteen ideologiari irain egiten badio.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ez balitz beteko, Alkateak, ofizioz jardunez, edo Udalbatzako beste edozein kideren eskariz, bertan dauden talde guztietako ordezkariak entzun ondoren, eta egoki iruditutako oharak egin ondoren, sinbologia hori, aktoan erretiratua izan dadila, aginduko du. Agindu hori ez balitz borondatez beteko, egokien deritzaizkion erabakiak har ditzake, irainak denbora gehiagor iraun ez dezan.

70. Artikulua. 1. Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 76 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, baldin

eta, Udalbatzako kideren batek uko egin beharko balio eztabaida eta bozketan parte hartzeari, bilkura-aretoa utzi egin beharko du, gai hori eztabaidatu eta bozkatzen den bitartean, salbu eta, zinegotzi moduan, bere jarduna eztabaidatu behar denean, zeinetan, hori egon eta defendatzeko eskubidea baitauka.

71. Artikulua. Bilkuren garapenari dagokionez, eta Udalbatzako kideen parte hartzeak duen izaera zehazteko helburuz, hurrengo terminologia erabiliko da:

1. Irizpena: Batzorde Informatiboak dosierra aztertu ondoren, Udalbatzari bidaltzen dion proposamena da. Bi zati ditu, bata, azalpenekoa, eta bestean, Udalbatzak hartu behar lukeen erabakiari buruzko proposamena agertzen da.
2. Proposizioa: Deialdiarekin batera doan Eguneko Gai-zerrendan barne sartutako gai bati buruz Udalbatzari igortzen zaion proposamena da, Araudi honetako 54.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki. Zati bat azalpenekoa edo frogatzekoa izango da, eta bestean, hartu beharreko akordioaren proposamena joango da. Ezingo da proposizio baten eztabaidan eta bozketan sartu, aurretik berresten ez bada, aipatu 54.3 artikuluan erabakitakoaren arabera, gaia Egunerko Gai-zerrendan sartzen dela.
3. Mozioa: 64.5 artikuluan adierazitakoan babesturik, zuzenean, Udalbatzari igortzen zaion proposamena da. Hori, bai ahoz, bai idatziz, egin ahal izango da, hurrengo prozeduraren arabera:
 - a) Idatziz aurkezten diren mozioak Idazkaritzan entregatuko dira, gutxienez, Osoko bilkura egitea aurrikusita dagoen data baino zazpi lanegun lehenago. Idazkaritzak, diligentzia luzatuko du, non azalduko den, mozioa zein egun eta ordutan entregatu den.
 - b) Udalbatzaren gai-zerrendan sartu ezin daitezkeen mozioak, epez

- kanpo jaso direlako, derrigorrez, Udalbatzak egingo duen hurrengo ohiko bilkuran sartuko dira. Hala ere, proposamena egiten duenak, mozioa, urgentziazko prozedura bidez, aukeztu ahal izango du, f) atalean aurrikusita dagoen bezala.
- c) Alkateak, Bozeramaileen Batzordeari entzun ondoren, eta arrazoitua izango den ebazpenaren bidez, galerazi lezake mozio bat gai-zerrendan sartzea.
 - d) Mozioak, urgentziazko prozeduran aurrikusitakoa izan ezik, idatziz aurkeztuko dira eta proposatzen duten talde politikoetako bozeramaileek sinatuko dituzte, edo hori proposatzen duten zinegotziek, edo Araudi honetako 72 artikulua mozioak aurkezteko ahalmena ezagutzen dien kolektiboek.
 - e) Mozioek, azalpeneko edo frogatzekoa izango den zati bat izango dute, eta hartu beharreko erabakiari legokion proposamena.
 - f) Urgentziazko mozioa dela ulertzen da, Araudi honetako 64.5 artikuluan xedatutakoari jarraiki ipintzen dena, gai-zerrendan sartu gabeko edozein gairen gainean.
 - g) Ezingo da urgentziazko moziorik aurkeztu, baldin eta aurretik, Udalbatzak baztertutako mozio arrunt baten gai bera tratatzen badu.
4. Boto partikularra: Irizpen bat aldatzeko proposamena da, hori Batzorde Informatiboan parte hartzen duen kide batek egiten du. Hori irizpenari erantsi beharko zaio, Batzordeak onespenean ematen dion biharamunetik aurrera.
5. Zuzenketa: Udalbatzari aurkeztzen zaion irizpen, proposizio edo mozio bat aldatzeko proposamena da. Korporazioko edozein kidek aurkez dezake, gaiari buruzko eztabaidari hasiera eman baino lehen, Alkateari aurkeztutako idatziaren bidez. Ondorio hauetarako:
- a) Osotasunari aurkeztutakoa; zuzenketa horren bidez, gaiaren gainean inolako erabakirik ez hartzea eta irizpena edo proposizioa Batzorde Informatiboari itzultzea eskatzen da, hain zuzen, gaiaren arabera, horren eskumena duen batzordeari. Zuzenketa, mozio baten osotasunari egiten zaionean, ulertu behar da, zuzenketak, gaiaren gainean, inolako erabakirik ez hartzea suposatzea behar duela soilik.
 - b) Ezabatzekoa izango da, baldin eta zuzenketak, bakarrik, proposameneko punturen bat edo gehiago ezabatzeko, eskatzen badu. Mota horretako zuzenketak, lehen unean, bozkatuko dira.
 - c) Aldatzekoa izango da, proposameneko punturen bat edo gehiago aldatu edo eraldatzea eskatzen duena. Mota horretako zuzenketak, bigarren unean, bozkatuko dira.
 - d) Eransketakoa izango da, proposamenaren testua oso-osorik errespetaturik, bere zabaltzea eskatzen duena, barne hartu gabeko punturen bat edo gehiago sartzeko. Mota horretako zuzenketak, hirugarren unean, bozkatuko dira.
 - e) Zuzenketa mistoak ere aurkeztu ahal izango dira, baina horietako bakoitzaren edukia, zehaztasunez, adierazi beharko da.
 - f) Aurrekoaz gain, hala ere, zuzenketak “in voce” aurkeztu ahal izango dira, gaiaren eztabaida bera ematen denean. Zuzenketak daudenean, batzuk idatziz eta besteak “in voce”, Alkateak erabakiko du horietako bakoitzaren bozketaren unea eta ordena, eta hasteko, bere iritziz, irizpenaren, proposizioaren edo mozioaren edukitik urrutiena legokeenetik edo desberdinena litzakeenetik hasiko da.
 - g) Zuzenketa guztiak, erabakiari buruzko proposamenaren aurretik, bozkatuko dira.
 - h) Azkenik, irizpena, proposizioa edo mozioa bozkatuko da, onetsitako

zuzenketen bidez sartutako
aldaketak barne direla.

6. Eskaria: Jarduteko proposamen bat egitea da, eta hori udal gobernuko organoren bati zuzendua dago, hurrengo arauen arabera:

- a) Osoko bilkuran egindako eskariak eztabaidatuak izan daitezke, horiek hartu direla ulertuko da, baina, inolaz ere ez dira bozkatuko.
- b) Eskariak Udalbatzako kide guztiek egin ahal izango dituzte, edo udal taldeek beren bozeramaileen bidez.
- c) Eskariak ahoz edo idatziz egin ahal izango dira, eta orokorki, hurrengo bilkuran eztabaidatuko dira, baina hala ere, egindako bilkura berean eztabaida daitezke, baldin eta, Alkateari egoki baleritzo.
- d) Ezingo da maila pertsonaleko edo alderdi politiko zehatzei zuzendutako eskaririk egin, baizik eta bakarrik, Korporazioko gobernu-organoei zuzenduak – pertsona bakarrekoak edo kolegiatuak–.

7. Galdera: Osoko Bilkuran, gobernu-organoei zuzendutako edozein galdera da, hurrengo prozeduraren arabera:

- a) Galderak Korporazioko kide guztiek egin ditzakete, edo udal taldeek beren bozeramaileen bidez.
- b) Osoko bilkura baten barruan egindako galderak, orokorki, horren hartzaileak hurrengo bilkuran erantzungo ditu, hala ere, galdera hartzaileak segituan erantzun diezaioke, horrela nahi izan ezker.
- c) Berrogeita zortzi ordu aurretik, idatziz aurkeztutako galderak, normalean, bilkuran erantzungo dira, edo egokiro zurituko diren arrazoiengatik, hurrengoan. Idatziz aurkeztu arren, aurrerapen gutxiagorekin balitz, horren hartzaileak hurrengo bilkuran erantzungo ditu, baldin eta ez badio behintzat, erantzuna segituan eman nahi.

72. Artikulua. Basauriko herritarrek, elkarteek, erakundeek eta kolektiboek mozioak aurkez ditzakete, eta eskari eta galderak egin, VI. Tituluan ezarrita dagoenaren arabera.

4. Atala. Bozketei buruz.

73. Artikulua. 1. Gai bati buruzko eztabaida bukatutakoan, baldin eta balego, bozketari ekingo zaio.

2. Bozketa hasi aurretik, Alkateak argi eta labur planteatuko du horren edukia eta botoa emateko modua; baldin eta hori beharrezkoa balitz, eta zinegotziren batek eskatuko balio.

3. Behin bozketa hasitakoan, ezingo da hori inolaz ere eten, ezinbesteko arrazoiengatik ez bada. Bozketa egiten den garaian, Alkateak ez du hitza hartzeko baimenik emango, eta Udalbatzako ezein kidek ezingo du bilkura aretora sartu edo hortik irten, bozketako emaitza jakitera eman arte.

4. Bozketa arrunta amaitutakoan, Alkateak, erabakitakoaren deklarazioa, egingo du. Bozketa nominala izango balitz, Idazkariak zenbatuko ditu emandako botoak, eta horren emaitza emango du ahots ozenez, eta Alkateak, horren arabera hartutako erabakia, adieraziko du.

74. Artikulua. 1. Udalbatzak bere erabakiak, orokorki, bertan dauden kideen artetik, gehiengo arruntez, hartzen ditu. Gehiengo arrunta dagoela ulertzen da, aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnean.

2. Gehiengo absolutua dela ulertzen da, aldeko botoak, Korporazioko kideek osatzen duten kopuru legaletik, erdiak baino gehiago direnean.

3. Beharrezkoa da Korporazioko kide-kopuru legaletik gehiengo osoaren aldeko botoa izatea, hurrengo gaiei buruzko erabakiak hartzeko:

- a) Udalerriak sortu eta ezabatzeak, eta udal barrutiak aldatzeko.
- b) Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 45. artikulua aipatzen dituen Erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeak.
- c) Udal barrutiko mugaketari onespena emateko.
- d) Udalerriaren izena eta horko burutasuna aldatzeko.

- e) Bandera, ikurra edo armarria erabaki edo aldatzeko.
- f) Udal Araudi Organikoa onetsi eta aldatzeko.
- g) Mankomunitateak edo beste Elkartze Elkartek sortu, aldatu edo desegiteko, eta baita, horietan barne sartu, eta horien estatutuak onetsi eta aldatzeko.
- h) Funtzionarioak edo jarduerak beste Herri Administrazioetara transferitzeko, hala nola, beste Administrazioek egindako ordezkariak edo kudeatzeko gomendioak onartzeko, Legeak ez balu behintzat, derrigorrez ezarriko.
- i) Herri-ondasunak lagatzeko, aprobatxamenduko titularitatea edozein delarik ere.
- j) Ondasunak edo zerbitzuak 5 urte baino gehiagorako besteri emakidan uzteko, horien zenbatekoek aurrekontuaren ohiko baliabideen ehuneko 20a gainditzen badute.
- k) Monopolio-erregimen barruan jarduerak municipalizatzeko, eta dagokion zerbitzu-gestioaren forma zehatza onartzeko.
- l) Eragiketa finantzarioei edo kreditu-eragiketei onespina emateko, eta kita eta itxaroteak emateko, horien zenbatekoa Aurrekontuaren baliabide arruntan % 10a gainditzen duenean, hala nola, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158.5 artikuluan aurrikusitako kreditu-eragiketak.
- m) Hiringintzako legerian aurrikusitako planeamendu orokorreko instrumentuak izapidetzen direnean, Udalbatzari dagozkion erabakiak hartzeko.
- n) Ondasunak besterentzeko, ondasun horien zenbatekoa aurrekontuko baliabide arruntan %20a baino handiagoa denean.
- o) Ondasun demanialen edo herri-ondasunen kalifikazio juridikoa aldtzeko.
- p) Ondasunak beste administrazio edo erakunde publiko batzuen esku doan lagatzeko.
- q) Legez erabakitako gainontzekoetan.

4. Zinegotzien botoa norberarena eta ordezkazina da.

75. Artikulua. 1. Botoa, bai proposamenaren alde bai aurka, eman daiteke, baina hala ere, Udalbatzako kideek botoa emateaz abstenitu daitezke. Dagokion bozketaren ondorioetarako, abstenitu egiten direla ulertuko da, gai baten eztabaidari hasiera eman ondoren, bilkura aretotik aldegin, eta bozketa egiteko unean, areto horretan ez leudekeen Udalbatzako kideak. Hala ere, bozketa hasi baino lehen, bilkura aretora itzuliko balira, aipatu bozketa horretan, jakina, parte hartu ahal izango lukete.

2. Bozketa batean enpatea emango balitz, beste bozketa berri bat egingo da, eta enpateak jarraituko balu, Alkateak emandako kalitatezko botoak erabakiko luke.

76. Artikulua. 1. Bozketak, arruntak, izendunak edo isilpekoak izan daitezke.

2. Bozketa arrunta dela ulertzen da, ohiturazko adierazpen bidez, aldeketasuna, aurkakotasuna edo abstentzioa adieraztea; nahikoa izango da, talde politiko bakoitzeko bozeramaileak adierazitako botoa. Aurretik esandakoaz gain, hala ere, nahikoa izango da zinegotzi batek boto-zenbaketa egin dadila eskatzea, banaka egiteko, hori eskua altxaz edo antzeko kontaketa izango duen beste edozein sistema bidez egin daiteke.

3. Bozketa izendunak izango dira, Idazkariak, abizenaren alfabeto-ordenan deiturik, azkena beti Alkatea izanik, banan-banan botoa ematen denean; horrela, horietako bakoitzak, deitua izatean, ahots ozenez “bai”, “ez” edo “abstenitu egiten naiz” erantzungo du.

4. Isilpeko bozketak dira, boto-txartelaren bidez egiten direnak, zeina Korporazioko kide bakoitzak kutxa edo poltsa batean sartuko duen.

77. Artikulua. 1. Bozkatzeko sistema normala, bozketa arrunta izango da.

2. Bozketa izenduna egiteko, zinegotziren batek eskatu beharko du, eta bozketa arruntan, Udalbatzak gehiengo arruntez onespina eman beharko dio eskari horri. Edozein modutara, bozketa izenduna izango da alkatearen zentsura-mozioari dagokiona, edo alkateak berak eska lezakeen konfidantzako mozioari dagokiona.

3. Isilpeko bozketa, pertsonak hautatzeko edo kargugabetzeak egiteko bakarrik, erabili ahal izango da, eta orokorki, intimitateari dagokion oinarritzko eskubideari eragiten dion guztietan, bai Udalbatzako kideak direnean, bai langile edo funtzionarioak direnean, herritarrek direnean edo, orokorki, hirugarrenak direnean. Arau batek eskatzen duenean erabiliko da, edo artikulua honetako 2. ataleko prozeduraren arabera.

78. Artikulua. Erabakia adierazi ondoren, eztabaidan parte hartu ez duten taldeek, edo horren ostean, botoaren zentzua aldatu dutenek, Alkateari, botoaren argibiderako txanda bat eska lezaioke, baina horrek ez du bi minututik gora iraungo.

Atala: Udalbatzak, gainontzeko Gobernu Organoen jarduna kontrolatu eta fiskalizatzeari buruz.

79. Artikulua. Udalbatzak, gainontzeko gobernu-organoen jardunari buruzko kontrola eta fiskalizazioa, hurrengo bitarteko hauen bidez egingo du:

- a) Egoki diren erabakiak hartuz, hain zuzen, gobernu-organoen kudeaketari buruzko jarraipen Batzordeak emandako irizpenaren, txostenaren edo proposamenaren gainean hartutakoa, apirilaren 2ko 7/85 legearen 20.1.c) artikuluan aipatzen den arabera.
- b) Ordezkaritza duten zinegotziei, bertan egoteko eta informazioa emateko, errekerimendua eginez.
- c) Gobernu Batzarraren edo Alkatearen jardunari buruz eztabaidatuz.
- d) Mozioak aurkeztuz, hor barne sartzen dira, bestalde, zentsura mozioa bera eta konfidantzazkoa, hauteskunde lege orokorrean ezarrita dagoen arabera.
- e) Eskari eta galderak eginez. Eskari eta galderei buruzko puntua beti sartuko da, ohiko bilkura guztietako gai-zerrendaren barnean.
- f) Bai Estatuaren oinarritzko legerian aurrikusitakoaren bidez, bai Euskal Autonomi Erkidegokoak emandako beste edozein bitartekoren bidez.

80. Artikulua. 1. Alkateak emandako eskuordetzaren bidez, kudeaketako arlo baten erantzunkizuna duen Udalbatzako edozein kidek, Udalbatzaren aurrean agertzeko obligazioa du, horrek, gehiengo arruntez, horrela erabaki lezakeen guztietan, bere jardunari buruz galde lezaizkioketen galderei erantzuteko xedez..

2. Halaber, Korporazioko kide horiek obligazioa izango dute, aurreko artikuluko a) letran aipatutako gobernu-organoen kudeaketa jarraitzeko Batzordearen aurrean agertzeko, aipatu Batzordeak, gehiengo arruntez, horrela erabaki lezakeenean.

3. Behin Udalbatzak edo jarraipen Batzordeak aurreko letretan adierazitako agerpena egitea erabaki duenean, Alkateak edo Batzordeko Lehendakariak gaia, hori aztertu behar duen organo kolegiatuak egingo duen hurrengo ohiko edo ezohiko bilkurako gai-zerrendan, sartuko du, eta interesatuari, hartutako erabakiaren berri emango zaio, eta bilkura non eta noiz egingo den, hara ager dadin, eta agerpenean zertaz hitzegingo den. Jakinarazpenaren eta bilkura egitearen artean, gutxienez, hiru egun pasa beharko dute.

4. Batzordearen aurrean egin beharreko agertze horri buruz, esan, partehartzea, Arautegi honetako 67. artikuluan ezarritako ordenan, egingo dela, eta informatzaileak, talde politiko desberdinek egin lezaizkioketen galderei, erantzun behar diela.

5. Baldin eta agertzea, jarraipen batzordearen aurrean egiten bada, horrek Udalbatzari, egoki liratekeen erabakiak proposa liezaizkioke. Agertze hori Udalbatzaren aurrean gertatzen bada, erabakiren bat hartu ahal izateko, hori ohiko bilkura izan beharko du, eta Araudi honetako 55. Artikuluan ezarrita dauden baldintzak bete beharko dira.

81. Artikulua. 1. Gobernu Batzarraren kudeaketa eztabaidatzeko helburuz, Udalbatzak ezohiko bilkura egiteko erabakia har lezake, hori Alkateak proposatututa izan daiteke, edo bestela, Korporazioko kideen kopuru legaletik, gutxienez, laurden batek eskatuta.

2. Baldin eta, Udalbatzen bilkura egitea, Korporazioko kideen kopuru legaletik, gutxienez, laurden baten eskari bidez egingo bada, kasu horretan, Araudi honetako 50.2 artikuluan aurrikusitakoa aplikatuko litzateke.

3. Artikulu honetan erreferentzia egiten zaion bilkura egitekoan jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, esan, izaera orokorarekin ezarritakoa euki beharko dela kontuan, eta lehenengoz, proposamenaren egileak esku hartuko du, proposamenaren esanahia adierazteko xedez. Gobernu Batzarreko edonork erantzungo dio, hain zuzen, beren artean aukeratua izan denak, eta gero, erantzun txanda bidez, Korporazioko beste taldeek esku hartu ahal izango dute, izaera orokorarekin ezarri den gehienezko denboran, eta ordezkaritza

politikoaren alderantzizko ordenan, galderak egiteko xedez edo egoki lirateken oharrak egiteko.

4. Eztabaidaren ondorioz, mozio bat aurkez daiteke, Udalbatzak Gobernu Batzarraren kudeaketaren gainean bere jarrera azaltzeko aukera izan dezan. Baldin eta, Udalbatzak, gehiengo arruntez, mozioa eztabaidatzea onartuko balu, hori, hurrengo osoko bilkurako gai-zerrendaren barnean, sartuko da, dela ohikoa, dela ezohikoa.

82. Artikulua. 1. Zentsura-mozioari dagokion prozeduraren bidez, Udalbatzak, Alkatearen erantzunkizun politikoa eztabaidatzen du, eta bere kargugabetzea ahalbideratu, eta Alkate kargurako beste hautagai bat proposatzen du.

2. Alkatea, zentsura-mozio bidez, kargugabetua izan daiteke, eta hori, hurrengo araei jarraiki garatu beharko da:

- a) Zentsura-mozioa, Udalbatzako kideen kopuru legaletik, gutxienez, gehiengo absolutuak proposatu beharko du, eta bestalde, Alkate kargurako hautagai bat proposatu beharko du, eta horren esanbidezko onarpena, mozioaren proposameneko idatzian, jaso behar da. Mozioaren baldintza formalak hurrengo hauek dira:
 - Izenburuan, hori izenpetzen duten zinegotzien izen eta abizenek azaldu beharko dute.
 - Arrazoitu egin beharko da zergatik agertzen den.
 - Alkate kargurako hautagai izango den zinegotziaren izen-abizenak.
 - Hautagaiaren esanbidezko onarpena.
 - Proposamena egiten duten guztien eta horietako bakoitzaren data eta sinadura, zeina, hurrengo letran esango den bezala baimendua, egongo den.
- b) Idatzian, Notarioak edo Idazkari Nagusiak egokiro baimendutako sinadurak agertu behar dute, eta sinatzaileetako batek Idazkari Nagusiari aurkeztu behar dio. Bestalde, Idazkari Nagusiak egiaztatu beharko du,

zentsura-mozia, artikulua honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, eta egintza berean, hori egiaztatzen duen diligenza egingo du.

- c) Horrela diligentziatutako dokumentua, mozioa sinatzen duen norbaitek, Udaleko Erregistro Orokorrean, aurkeztu behar du, eta Udalbatzaren bilkura, automatikoki, hori erregistratu ondorengo biharamunetik aurrera, hamargarren eguneko hamabietarako deitua geratuko da. Udalbatzako Idazkariak inguruabar horren berri ematen duen jakinarazpena bidaliko die korporazioko kide guztiei, gehienezko egun bateko epean, dokumentua Erregistroan aurkez litekeenetik hasita, bilkuran parte hartzera etor ledin, eta hor, eguna eta ordua agertuko da.
- d) Udalbatzaren buru, Adineko Mahaiak egingo du, eta hori, bilkuran leudekeen zinegotzietatik, adinez nagusiena eta gazteenak osatuko dute, baztertuta hala ere, bai Alkatea eta bai Alkate kargurako hautagaia, eta idazkari gisa berriz, Korporaziokoak jardungo du, justu, Alkate berria izendatu arte, baldin eta mozioa aurrera ateratzen bada, edo hori ez dela aurrera atera adierazi arte. Ondorio horretarako, adinez nagusiena den zinegotzia Mahaiburuan eseriko da, eta horren eskubitan, adinez gazteena litzatekeena.
- e) Mahaiaren zeregina honetara mugatuko da, hots, zentsura-mozioa irakurtzera, eta bertan baleude, denbora labur batez hitza ematera, eta hori, hurrengo ordena honetan, emango zaie, Alkate kargurako hautagaiari, Alkateari eta udal taldeetako bozeramaileei, eta jarraian, zentsura-mozioa bozkatu arazi egingo luke. Mintzaldien iraupena eta bigarren txandaren aukera Adineko Mahaiaren irizpidearen arabera egongo da, kontuan izanik, horiek laburrak izan behar dutela.
- f) Zentsura mozioaren bozketa isilpekoa izan daiteke, baldin eta Udalbatzak, ohiko bozketan, horrela erabakiko balu, gehiengo arruntez, edozein zinegotzik proposatu ondoren.
- g) Adineko Mahaiak, legalki, Alkateari esleiturik leudeken eskumen guztiak

eukiko ditu, Udalbatzaren buru egitea dagokion bezainbatean, hor barne sartzen dira, bestalde, eztabaiden antolamendua eta ordena publikoa zaintzea.

- h) Zentsura-mozioan barne sartutako hautagaia Alkate izendatua izango da, baldin eta hori aurrera ateratzen bada, Korporazioa, legalki, osatzen duten zinegotzien kopururitik, gehiengo absolutuaren aldeko boto bidez. Kasu horretan, Alkate izendatua izaten denak karguaren jabetza hartuko du Udalbatzaren aurrean, indarrean dauden legeen arabera, eta bilkuran ez balitz egongo, berrogeita zortzi orduko epean karguaz jabetzeko errekerimendua egingo zaio, hori bai, Udalbatzaren aurrean, eta ohartemango zaio, ez balitz agertuko, horretarako arrazoirik eman gabe, hauteskude-legean, Alkate kargua hutsik legokeen kasurako erabakitakoa egingo dela.

3. Zinegotzi batek, bere agintaldiak irauten duen bitartean, ezingo du zentsura-mozio bat baino gehiago sinatu. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko, artikuluko 1. Ataleko a) eta b) letretan aurrikusitako baldintzak ez betetzeagatik, izapidetu gabe gera litezkeen mozioak.

4. Alkateak dimisioa aurkez lezakeen kasuan ere, horregatik ez litzateke atzera botako zentsura-mozioaren izapidetza eta bozketa. Kasu horretan, Alkate funtzioak, legalki, haren ordezkari izan behar duenak egikaritu dituzte, Alkateordeen izendapen-ordenari jarraiki, mozioa eztabaidatu den osoko bilkura egin arte.

5. Alkateak obligazioa du, hain zuzen, Korporazioko kideek, zentsura-mozioa bozkatuko den osoko bilkurara joateko duten eskubideari, eta bertan botoa emateko duten eskubideari, kalte egin, edo hori oztopatu edo eragotzi lezakeen edozein egintza galerazteko obligazioa du. Bereziki, ez dira aplikagarri, zentsura-mozioan, administrazio prozeduraren legerian aurrikusitako abstentzio eta errekusazioaren zioak.

6. Halaber, zentsura-mozioa aurrera ateratzen bada, automatikoki, Alkateak, eginak euki lezazkeen izendapenak baliogabetuak geratuko dira,

direla Alkateordeak, direla Arloko Zinegotzi Ordezkariek, direla Gobernu Batzarreko kideak. Bitartean, Alkate berriak dagozkion izendapenak egingo ditu, Udaleko ohiko kudeaketako funtzio guztiak bere gain hartuko ditu, guzti hori, Araudi honetako 89.2 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

83. Artikulua. 1. Alkateak, Udalbatzari, konfidantzazko gaia planteatu ahal izango dio, hurrengo edozein gai onetsi edo aldatzeari loturik:

- a) Urteko aurrekontuak.
- b) Zergen gaineko Ordenantzak.
- c) Araudi Organikoa.
- d) Udal barrutiko planeamendu orokorreko bitartekoen izapidetzari amaiera ematen dion onespena.

2. Konfidantzazko gaia aurkeztea, esanbidez, Udalbatzaren gai-zerrendako dagokion puntuan agertuko da, eta aipatu erabakiak hartzeko beharrezkoa izango da, apirilaren 2ko 7/1985 Legean, horietako bakoitzarentzat, eskatzen den bozketako “quorum”-a, horrek arautzen baititu Toki Erregimeneko Oinarriak. Bozketa, edozein kasutan, deialdi publikoan egingo den bozketa izendun sistema bidez egingo da.

3. Konfidantzazko gaia aurkeztu ahal izateko, aurretik, beharrezkoa izango da, legokion proposamena Udalbatzak eztabaidatua izatea osoko bilkuran, eta onespernerako beharrezko izan zezakeen gehiengorik ez lortu izana.

4. Baldin eta, konfidantzazko gaiak ez balu erabakia onesteko beharrezko aldeko boto kopuru nahikorik lortuko, Alkateak, automatikoki, kargua utziko du, eta funtziotan jarraituko du, kargu horretan hurrengo izango denak bere karguaren jabetza har dezan arte. Alkateraren hautaketa, osoko bilkuran egingo da, eta hori, automatikoki, konfidantzazko gaiaren gaineko akordioaren bozketa egin ondorengo biharamunetik hasita, hamargarren laneguneko hamabietarako, deituko da, eta hautaketa hori bestalde, Araudi honetan, Alkatea aukeratzeko jarrita dauden arauen arabera egingo da, hurrengo berezitasun hauekin:

- a) Kargua utzi duen Alkatea, zerrendaburutik baztertua, izango da.
- b) Kargua utzi duen Alkatearen zerrenda bereko bigarrenak hartuko du haren lekua, bai Alkate kargurako hautagaia

aurkezteari dagokionez, bai Alkatearen hautaketa automatikoari dagokionez, baldin eta, zerrendarik bozkatuenekoa bada, eta zinegotzien kopuru legeletik, gehiengo absolutuak ez balu beste hautagairen bat lortuko.

5.- Aurreko zenbakian agertzen den aurrikuspina ez litzateke aplikagarria izango, konfidantzari buruzko gaia, urteko Aurrekontua onesteari edo aldatzeari loturik, legokeenean. Kasu horretan, konfidantza emana izan dela ulertuko da eta proiektua onetsia, baldin eta konfidantzari buruzko gaiaren ezezpina bozkatu zenetik hilabeteko epean, zentsura-mozioa, Alkatearen ordezkari hautagaia barne dela, aurkeztuko ez balitz, edo horrek aurrera egingo ez balu. Ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko aurreko artikuluko 3. atalean ezarritako mugapena.

6.- Alkate bakoitzak ezingo du konfidantzazko gai bat baino gehiagorik aurkeztu urte batean, eta hori, bere agintaldiaren hasieratik kontatuko da, eta bere agintaldi osoan, ezingo du bi bider baino gehiagotan aurkeztu. Bestalde, ezingo da konfidantzazko gaiarik planteatu Korporazioaren agintaldiko azken urtean.

7.- Ezingo da konfidantzazko gaiarik planteatu, zentsura-mozioa aurkezten denetik hasita, hori bozkatu bitartean.

8.- Gai baten onespenera konfidantzazko gaia lotzen bazaio eta hori bozkatzen bada, horren alde bozka lezaketzen zinegotziek ezingo dute, hori planteatu zuen Alkatearen aurka, zentsura-moziorik sinatu, sei hilabeteko epea igaro arte, eta epe horri hasiera, bozketa egin zen egunean emango zaio. Halaber, aipatu epe horretan, adierazitako zinegotziek ezingo dute aurkako botorik eman gai horren aurka, hain zuzen, konfidantzazko gaiarekin lotura duen gaiaren aurka, baldin eta bozketa, aurrenekoaren termino beretan planteatzen bada. Baldin eta botoa aurka emango balitz, hori, baliogabea dela joko da.

6.- Atala. Akten gainean.

84. Artikulua. 1 Bilkura bakoitzeko, Idazkariak akta luzatuko du, non agertu beharko duen:

- a) Bilera egin deneko tokia, eta hor, udalerriaren izena eta zein lokaletan egin den azalduko da.
- b) Urtea, hilabetea eta eguna.
- c) Zein ordutan hasi den.
- d) Udaltzako kideen izen abizenak, bai Alkatearena, bai bileran egon diren Udaltzako kideena, bai ezintasuna adierazi eta etorri ez diren kideena, bai ezer esan gabe etorri ez diren kideena.
- e) Batetik, bilkura ohikoa edo ezohikoa izan den, eta bestetik, lehen edo bigarren deialdian egin izan den.
- f) Idazkariaren, edo lege barruan hori ordezkatzeko duenaren asistentzia, Kontuhartzailetzako funtzionario arduradunaren presentzia, eta baita Euskara Gaztelaniako itzultzailearena ere.
- g) Aztertu dituzten gaiak, eztabaidan parte hartu lezaketzen udaltzako talde edo kideen iritziz laburtuak, eta horietan eman daitezkeen inguruabarrak. Baldin eta korporazioko kideren batek bere saioa, hitzez hitz aktan jasoa izan dadila, nahiko balu, eztabaida hasi aurretik, berak egin asmo duen saioari buruzko kopia edo transkripzioa eman beharko du.
- h) Egiten diren bozketaren berri emango da, eta izendunik emango balitz, kide bakoitzak emandako botoaren berri adieraziko da. Bozketa arruntei dagokionez, aldeko botoen, aurkako botoen eta abstentzioen kopurua adieraziko da, eta aurkako botoa eta abstenitu daitezkeen talde politikoaren edo zinegotzien izenak azalduko dira.
- i) Hartutako erabakiei buruzko xedapenezko zatia.
- j) Udalburuak bilkurari amaiera ematen dion ordua.

2. Baldin eta bilkurarik ez balitz egingo, parte hartzailearik ez egotearen, aztertze gairik ez egotearen edo beste edozein arrazoigatik, Idazkariak aktaren ordezkari, bere sinaduraz baimenduko duen diligentsia egingo du, eta hor, ez egitearen zioa agertuko du, eta bilkurara etorritako eta etorri ez liratekeen zinegotzien izenak, eta ezin etorria adierazi edo adierazi ez luketenena agertuko du.

85. Artikulua. Akta, behin Udalbatzak onetsi ondoren, Akta Liburuan transkribatuko da, eta horrek eskumena izan dezan, Alkateak, bilkuran dauden zienegotziek eta Idazkariak sinatuko dute. Aktak kontsultatu ahal izateko, akta-liburuen edukiari buruzko digitalizazioa egingo da.

BIGARREN KAPITULUA.

GOBERNU BATZARRAREN FUNTZIONAMENDUA.

86. Artikulua. 1. Gobernu Batzarrak, bere eraketako bilera, Alkateak deituta egingo du, eta gehienez, horren osaketaren eguneko biharamunetik hasi, eta hurrengo hamar egunen barruan. Gobernu Batzarraren sortze eta osaketa jasotzen duen ebazpenaren berri, Udalbatzari emango zaio, Araudi honetako 34.e) artikuluan aurrikusita dagoen bezala.

2. Gobernu Batzarrak, ohiko bilkura, Alkateak zehaztu dezakeen aldikotasunarekin egingo du, eta horrek gehienez, ezingo du bi astetik gorakoa izan, oporraldietan izan ezik.

3. Ezohiko bilkurak eta presazkoak, Alkateak, izaera horrekin deitzen dituenean, egingo dira.

4. Alkateak, edozein momentutan, deitu ahal izango du Gobernu Batzarra, horren iritzia jakitea garrantzitsua iruditzen zaion bakoitzean, edo horren laguntza nahi lukeenean, hain zuzen, berari dagozkion ahalmenen erabilpenean, ebazpena eman aurretik.

5. Bilkurak, Alkateak erabaki dezakeen Udaletxeko egoitzan egingo dira, ezinbesteko kasuak ematen ez diren bitartean.

87. Artikulua. 1. Gobernu Batzarraren bilkurak, Titulu honetako Lehen Kapituluaren ezarritakora egokituko dira, hurrengo aldaketa hauekin:

- a) Deialdiaren eta bilkura egiten den unera arte ezingo dira hogeita lau ordu baino gutxiago egon, ez bada, behintzat, ezohiko eta urgentziatzko bilkuraren kasua ematen, zeinetan, gai-zerrendaren barne sartutako gaiekin hasi aurretik, urgentziatzko deklarazioa egin beharko den, kide kopuruaren gehiengoaren aldeko boto bidez.
- b) Gobernu Batzarraren bilkurak ez dira publikoak izango, horrek hala ere, ez dio kalterik eragiten hartutako erabakiei buruzko publizitate eta Estatuko eta

Autonomi Erkidegoko Administrazioei jakinarazteari buruz. Gainera, Aktak Udaleko Ediktu Taulan jarriko dira, eta Udal horretako kideei, eskatzen dutenei, emango zaizkie, Araudi honetako 15. C) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta edozein modutan, Talde Politiko bakoitzari, beren bozeramailearen bidez, onetsia izan ondorengo hamar eguneko epean.

- c) Gobernu Batzarra balioztasunez eratua geratzeko, organo horren gehiengo absolutuak bilkuran egon beharko du. Quorum-ik ez balego, bigarren deialdian eratuko da, lehenengorako seinalatu denetik, ordubete beranduago, eta horretan, nahikoa izango da kideen heren bat bertaratzea, hala ere, horren kopuruak ezingo du hiru kideetik beheragokoa izan. Edozein kasutan, beharrezkoa izango da, Alkatea eta Idazkaria bertaratzea, edo legalki horien ordezkioak direnak bertaratzea, hala nola Kontuhartzailea, edo legalki, horren ordezkio egiten duena, azken kasu horretan hala ere, Alkatearen iritziz, gaiek ondorio ekonomiko-finantzariorik edo aurrekontuarik ez balute, ez da beharrezkoa bertan izatea.
- d) Alkateak, Batzordearen barruan, bere zentzuzko hautamenaren arabera, zuzendu eta bideratuko ditu eztabaidak.
- e) Baldin eta, Gobernu Batzarrak Udalbatzak emandako eskumenak erabiltzen baditu, derrigorrezkoa izango da, aurretik, dagokion Batzorde Informatiboaren txostena izatea.
- f) Gobernu Batzarraren aktak, Udalbatzaren bilkuretakoak idazten diren liburuan gabe, beste liburu batean idatziko dira..

2. Alkateak, Gobernu Batzarreko ez diren Udalbatzako beste kideen presentzia ere, eska dezake baita, Erakundearen zerbitzuan dagoen pertsonalarena, eta auzotarrena ere, beren eremuko jardueri buruz informa dezaten.

HIRUGARREN KAPITULUA.

BEHARREZKO ORGANOEN ARTEKO ORDEZKARITZEI BURUZKO ERREGIMEN OROKORRA.

88. Artikulua. Beharrezko organoen eskumenen ordezkaritza, administrazio publikoen erregimen juridiko eta administrazio prozedura arruntaren gaineko legeria orokorrean ezarrita dagoenaren bidez arautuko da, eta hor aurrikusita ez legokeena, jarraian agertzen diren aginduek arautuko dute.

89. Artikulua. 1. Ordezkaritza horrek, eraginkortasuna izango badu, eskuordetza hartzen duen organoaren onarpena behar du. Eskuordetza onartua izan dela ulertuko da, isilbidez, eskuordetza hartu behar duenak ez badu aurkakorik esaten hiru laneguneko epean, erabakiaren jakinarazpena edo eskuordetzaren ebazpena egiten denetik hasita. Halaber, isilbidez, ordezkaritza onartua izan dela ulertuko da, ordezkaritza hartu duen organoak eskumen horiek erabiliko balitu. Eskuordetzaren egintza B.A.O.-ean argitaratuko da.

2. Udalbatzak Alkatetzaren edo Gobernu Batzarraren esku jarritako eskuordetzak, eta Alkateak azken horretan jarri lezazkeenak, ez dira baliogabetuak geratuko, Alkatetzako titularitatean edo Gobernu Batzarraren osaketa zehatzean eman daitekeen aldaketa hutsarekin.

3. Eskuordetzen baliogabetzea edo horien aldaketa, horiek emateko eskatzen diren formalitate guztiak beteaz, egin beharko dira.

90. Artikulua. 1. Eskuordetza ematen duenak, ematen duen eskumenaren gainean, hurrengo ahalmenak gordeko ditu:

- a) Eskuordetutako ahalmenen gaineko kudeaketari buruz, eta ordezkaritzaren arira egindako egintza eta xedapenei buruz, informazio zehatza jasotzekoa.
- b) Erabaki garrantzitsuak hartu aurretik informatua izatekoa.
- c) Ordezkaritzen gaineko erregimena baliogabetu edo aldatzekoa.

2. Eskuordetza hartu duen organoak emandako egintzetan, hori, esanbidez adieraziko da, eta eskuordetza eman duenak hartu balitu bezala izango da.

3. Eskuordetza eman duen organoari dagokio, ordezkaritza hartu duen organoak emandako ebazpenaren aurka jarritako berrezarpeneko helegiteei, ebazpena ematea.

91. Artikulua. 1. Eskuordetza ematen duenak, beretzat eska dezake, edozein momentutan, eskuordetutako eskumena, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta administrazioko prozedura arruntari buruzko legerian ezarrita dagoenari jarraiki. Eskumenak eskatzeak, ez du eskuordetzako erregimen orokorraren baliogabetzea suposatzen.

2. Eskumenen ordezkaritza baliogabetzen den kasuan, jatorrizko eskumena lukeen organoak,

ordezkaritza hartua lukeen organoak emandako ebazpenak berrius lezazke, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Administrazio prozedura arruntari buruzko legeria orokorrean ezarritako kasuetan eta baldintzetan, ofizioz, egintza administratiboak berrikusteko xedez.

92. Artikulua. Eskumenen ordezkaritzak zehaztugabeko iraunkortasuna duela ulertzen da, ebazpenak edo eskuordetzaren aginduak besterik ez badu esaten behintzat, edo horren behin-behinekotasuna eskuordetzaren izaera beretik ez baldin baletor behintzat.

IV. TITULUA

UDALAREN ANTOLAKETA OSAGARRIARI BURUZ.

LEHEN KAPITULUA.

ORGANO OSAGARRIEN SAILKAPENA.

93. Artikulua. Udalaren organo osagarriak, derrigorrezkoak edo borondatezkoak, izan daitezke.

1. Honako hauek dira, derrigorrezko organo osagarriak:

- a) Batzorde Informatiboak.
- b) Kontuen gaineko Batzorde Berezia.
- c) Gobernu Organoen kudeaketa Jarraitzeko Batzordea.
- d) Bozeramaileen Batzordea.
- e) Kontratazioko Mahaia edo Mahaia.

2. Borondatezko organo osagarriak izan daitezke:

- a) Zinegotzi Ordezkarriak.
- b) Batzorde Bereziak eta Batzorde Teknikoak.
- c) Auzoetan, Alkatearen ordezkaritza pertsonalak.
- d) Auzotako Udal Batzordeak.
- e) Zerbitzuak eskaintzeko helburuz, Organo deskonzentratu eta deszentralizatuak.

- f) Udalbatzak edo Alkateak sortzea erabaki ditzaketenak, horren berri Udalbatzari emanez.

94. Artikulua. 1. Organo osagarri derrigorrezkoak, kasu guztietan, egongo dira.

2. Borondatezko organo osagarriak, Udalbatzak edo Alkateak, askatasun osoz, sortu, aldatu edo baliogabetu dezazkete, horietako bakoitzaren eskumenen barruan, baina azken kasuan, Udalbatzari, horren berri eman beharko zaio.

BIGARREN KAPITULUA.

DERRIGORREZKO ORGANO OSAGARRIEN GAINEAN.

1. Atala. Batzorde Informatiboen gainean.

95. Artikulua. 1. Batzorde Informatiboak, izaera iraunkorreko egiturazkoak, edo behin-behinekoak, izan daitezke. Egiturazkoak izango dira, Udalbatzak, mugagabeko iraupenarekin, formalki, sor ditzakeenak. Behin-behinekoak izango dira, berriz, bai gai zehatz baterako “ad hoc” eratutako Batzordeak, bai Udalak, arreta berezia eskatzen duten gaietarako sor lezazkeenak, bai, aztertzen diren gai ei dagokionez, mistoak direlako, hau da, bi edo gehiagoko egiturazko batzordeetako kideekin osatuak direnean, beti ere horiek Udalbatzak sortu baditu, eta horien osaketa aipatu udal organoak erabaki balu.

2. Halaber, Gobernu Batzarraren eta Alkatearen eskumenekoak diren gai ei buruz ere informatuko dute, baldin eta haien esanbidezko erabakiz, beren ezagup eean jartzen bazaizkie, eta baita, Gobernu Batzarrak, Udalbatzaren eskuordetzan, jarduten duen gaietan.

96. Artikulua. Udalbatzak hartutako akordio bidez erabakiko da, horren proposamena Alkateak egin ondoren, Batzorde Informatiboen hasierako kopurua eta horien izena, eta baita, udalbatzaren agintaldian eman daitezkeen edozein aldaketa.

97. Artikulua. Batzorde Informatiboak sortzeko akordioan, horien osaketa zehatza erabakiko da, hurrengo arau hauek kontuan izanda:

- a) Korporazioko Alkatea da batzorde horien guztien berezko Lehendakaria. Hala ere Alkateak, benetako Lehendakaritza, eskuorde lezake edozein zinegotzirengan, baina izendapen horren berri Udalbatzari emango dio.
- b) Batzorde horietan idazkari jardungo dute, lanpostuaren zereginei buruzko deskripzioan, funtzio hori esleiturik euki lezaketen, eta postu hori beteko luketen funtzionarioek, edo horien ausentzian, legalki, horien ordezk oak liratekeen funtzionarioek.
- c) Batzorde bakoitzaren osaketa, Udalean ordezk aritza duten Talde Politiko desberdinen artean dagoen proportzionaltasunera egokitua, egongo da.
- d) Talde bakoitzaren ordezk aritzan, Batzorde horietan parte hartu behar duten Udalbatzako kideen esleipen zehatza, honela egingo da, hots, Bozeramailearen idatzi bidez, zeina Alkateari zuzenduko zaion, eta horren berri Udalbatzari emango zaion; bestalde, titular bakoitzeko, ordezk o bat izenda daiteke. Ordezkorik ez balitz izendatuko, eta esanbidez, horren aurkako erabakirik ez balego, talde politiko bereko edozein kidek jardun ahal izango du ordezk o gisa.

98. Artikulua. Batzorde Informatiboen irizpenak derrigorrezkoak dira, baina ez dira lotesleak.

99. Artikulua. 1. Batzorde Informatiboek Udalbatzak erabaki lezakeen aldikotasunez egingo dituzte ohiko bilkurak, edo erabaki horren ezean, Alkateak edo Batzordeko Lehendakari eraginkorrak erabaki lezakeen egun eta ordutan, eta gutxienezko aldikotasuna, Udalbatzaren ohiko bilkuretarako, legalki, jarritako bera izango da. Halaber, bilkura ezohiko eta presazkoak deitu ahal izango dira. Batzordeko Lehendakaria derrigortua dago ezohiko bilkurako deialdia egitera, Batzordeko laurdenak, gutxienez, eskatzen duenean. Kasu horretan, Araudi honetako 50. artikuluko 2. zenbakian erabakitako eukiko da kontuan.

- 2. Bilkurak, Udaletxean, edo beste udal lokal batzutan, egin ahal izango dira.

3. Deialdia egitea Alkateari edo Batzordeko Lehendakari eraginkorrari dagokio, eta Batzordeko kideei jakinarazi behar zaie, edo bere kasuan, udal

taldeei, gutxienez, berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin, urgentziazkoak izan ezik. Edozein kasutan, horrekin batera, Gai-zerrenda joango da.

100. Artikulua . 1. Bilkurak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da Batzordeko kideen gehiengo absolutua bertan izatea, direla horiek titularrak, direla ordezkioak, baldin eta lehen deialdia bada; eta gutxienez hiru kide, bigarren deialdian bada, zeina, gutxienez, ordu erdi beranduago egingo den. Edozein modutan, beharrezkoa izango da Lehendakari eraginkorra eta Batzordeko Idazkaria bertan izatea.

2. Lehendakariak zuzendu eta bideratuko ditu eztabaidak bere zentzuzko erabaki bidez, eta osoko bilkurako eztabaidetan jarraitu beharreko printzipio orokorrak errespetatuko ditu.

3. Alkatea, bere borondate soilaren arabera, Batzordeetara joan daiteke eta horietan hitza hartu. Alkateak batzorde batean parte hartzeak ez du esan nahi, batzordeko lehendakaritza eraginkorra, bere gain hartzen duenik, ez bada behintzat, esanbidez, deialdian bertan, horrela adierazten. Azken kasu horretan, Alkateak beharrezko neurriak hartuko ditu, talde politiko guztien ordezkaritza proportzional egokiari eusteko, horretarako, bere taldeko norbait, egoki leritzona, ordezkaturiko du, eta horrek, bilkuran egon ahal izango duen arren, eta hitza izango duen arren, ez du boto eskubiderik izango.

4. Irizpenak bilkuran dauden kideen gehiengo arruntez onetsiko dira, eta berdinketak, Lehendakariaren kalitatezko boto bidez, erabakiko dira.

101. Artikulua. 1. Batzorde batek ezingo du beste baten eskumenekoa litzatekeen gaiari buruz eztabaidatu, ez bada behintzat, batzorde batzuen amankomuneko arazo bat, kasu horretan, Alkateak guztien arteko bilkura deitu ahal izango du, edo erabaki dezake, dosierra bi Batzordeetan izapidetu dadila, hurrenez hurren; modu horretan, batzorde bateko irizpenak bere eskumenekoa den eremuan bere iritzia azal diezaion besteari, zeinak, behin-betiko irizpena egingo dion Udalbatzari.

2. Batzordearen irizpena, eskumena duen zerbitzu administratiboek prestatutako proposamenari bere adostasuna ematera, muga daiteke; edo bestela, beste aukera bat egingo du.

3. Batzordeak onetsitako irizpenaren aurka leudekeen kideek eska dezakete, beren aurkako botoa jaso gera dadila, edo boto partikularra eman dezakete, Udalbatzaren aurrean defendatzeko helburuz.

102. Artikulua. 1. Batzordeko Lehendakari eraginkorrak eska dezake, bere ekimenez, edo Batzordeko kideen gehiengo arruntaren proposamenari jarraiki, bilkuretara, Udalbatzako kideak edo horren zerbitzuan dauden langileak bertaratu daitezela, informazioa emateko xedez.

2. Bai Korporazioko kide guztiak, bai horren zerbitzuan dagoen pertsonala behartuta dago, Batzorde Informatiboak eskatuta, bertaratu eta eskatutako laguntza ematera. Hala ere, hurrengo arauok bete beharko dira:

- a) Korporazioaren zerbitzuan dagoen pertsonari txostena eskatuko balitzaio, eskaria jaso duenak, ezingo balu bat-batean informatu, eska lezake emateko, administrazioko prozedura arruntari buruzko legeria orokorrean, txostenak egiteko aurrikusita dagoen epe orokorra.
- b) Eskumena duen Batzordearen jardueratik, baldin eta, eremu zigortzaile barruko proposamenen bat ondorioztatuko balitz, errekeritutakoari, zerbait lepora lezaiokeela pentsatzeko arrazoizko aztarnak ager daitezkeen unetik beretik, bere eskubideen berri emango zaio, hau da, abokatuaren laguntza izatekoa, ez daklartzeararena, errudun ez aitortzeararena, egiten zaion salaketaren berri izatea eta errugabetasun-presuntzioa.
- c) Inor ez da behartua izango, bere ideologia, erlijio edo siniskeraren gainean deklaratzera.

3. Batzorde Informatiboen bilkurak ez dira publikoak izango. Hala ere, Batzordeak, ofizioz, edo alde batek eskatuta, gehiengo arruntaren bidez, ateak irekitzea erabaki lezake, modu horretan, gaiari buruz, interes zuzena luketen pertsona fisiko edo juridikoek, edo Udalerrian, interes ekonomiko, sozial, kultural, kirolezko edo antzekoak ordezkatzan dituzten elkarte, erakunde edo taldeek parte har dezaten, hain zuzen, audientzia eskaintzeko xedez. Bereziki, Giza Baliabideen Batzorde Informatiboaren bilkuran, bertan egon ahal izango dute Pertsonalaren Batzordeko kide guztiek, boto eskubiderik gabe, baina hitza izateko eskubidearekin, Udaleko langileen interesei eragin lezaizkiekeen gai-zerrenda barneko gaiak eztabaidatzekoan, ez balira behintzat, barne-antolaketa soileko gaiak, kolektibo horri eragiten ez diotenak, horretarako, Giza Baliabideen Atal Buruak egingo duen txostenaren arabera.

4. Baldin eta aurreko atalean aurrikusitako audientzia emango balitz, eta interesatutako hirugarrenen arteko biren edo gehiagoren interesen artean gatazka emango balitz, derrigorrez, berdintasun printzipioa bermatu beharko da, bai prozeduran, bai audientzian, bai alde guztien kontraesanetan, Batzordeko Lehendakariak erabakiko duen eran, hain zuzen, egoki litzatekeen irizpena eman baino lehen.

5. Ogasuneko Batzorde Informatiboaren bilkuretar, edozein kasutan, Kontuhartzaitetzako funtzionario arduraduna joango da, edo eskuordetza lukeen funtzionarioa, eta horrek hitza izango du baina ez boto eskubiderik. Aipatu ordezkaritza, era generikoan eman daiteke, bera pertsonalki joatearen kalterik gabe, horrela egitea komenigarri jo lezakeenean.

6. Baldin eta Batzorde Informatibo batek izaera orokorreko xedapen baten onespina edo horren aldaketari buruz aritu behar badu, hor barne sartzen dira, baita, Udaleko Aurrekontu Orokorrak, epe bat aurrikusi beharko du zuzenketak aurkezteko, bai osotasunari, bai alde bati egindako zuzenketak aurkezteko. Aipatu epea igarotakoan, eztabaidari hasiera, osotasunari egindako emandakinetatik emango zaio, eta atzera botako balira, alde bati egindakotik jarraituko zaio, eta azkenean, xedapen orokorreko proiektua bozkatu egingo da, bere kasuan, egin zaizkion aldaketekin, onetsi diren emendakinak direla eta.

103. Artikulua. Batzorde Informatiboaren bilkura bakoitzeko akta jasoko da, eta hor jaso beharko dira, araudi honetako 84. 1 artikuluko hurrengo atalean aipatzen diren puntuak a), b), c), d), e) g), h) eta j), horiekin batera onetsitako irizpenak joango dira, eta bere kasuan, eman daitezkeen boto partikularrak. Batzordearen irizpena Lehendakariak eta Idazkariak sinatuko dute.

104. Artikulua. Atal honetan aurrikusi gabeko guztirako, Udalbatzaren funtzionamenduaren gaineko xedapenak izango dira aplikagarri.

2. Atala. Kontuen gaineko Batzorde Berezia.

105. Artikulua. 1. Kontuen Batzorde Bereziaren eraketa, osaketa eta integrazioa, eta funtzionamendua, bat etorriko da Batzorde Informatiboarentzat ezarritakoarekin. Aipatu Batzordea, derrigorrez, urte bakoitzeko ekainaren 1a baino lehen bildu behar du.

2. Udalbatzak, zentzu horretan, esanbidez, beste erabakiren bat ez balu hartuko, Kontuen Batzorde Bereziak, Ogasuneko Batzorde Informatiboak duen osaketa bera, izango du.

3. Kontuen Batzorde Bereziari dagokio, Udalaren, horren Erakunde Autonomoen eta horien arteko bateratuen kontu guztiei buruzko azterketa egin, eta horietaz informatzea, baldin eta horiek, osoko bilkuran, Udalbatzak onetsi behar baditu, Toki Erakundearen Kontabilitatea arautzen duen araudian erabakitakoaren arabera, hori Bizkaiko Lurralde Historikoari aplikagarri bazaio.

3. Atala. Gobernu-organoen kudeaketa jarraitzeko Batzordea.

106. Artikulua. 1. Gobernu-organoen kudeaketa jarraituko duen Batzordearen eraketa, osaketa eta integrazioa, eta funtzionamendua, bat etorriko da Batzorde Informatiboarentzat ezarritakoarekin.

2. Batzorde horren berezko funtzioak dira, Alkatearen, Gobernu Batzarraren, eta ordezkaritza luketen zinegotzien kudeaketari buruzko jarraipena egitea, hala ere jakina, Udalbatzak duen kontrol ahalmenari kalterik egin gabe. Halaber, Ikerketa Batzordearen funtzioak egin ditzake.

3. Aipatu Batzordeak eskubidea du, Alkateak, Gobernu Batzarrak eta Arloko Ordezkariek emanda, Udaleko zerbitzuen esku legokeen aurrekari, datu edo informazio guztia jasotzeko, baldin eta horiek beharrezko izango balira bere funtzioa egoki garatzeko. Informazio eskari horiek izapidetzeko, Araudi honetako 14. artikulua hartu beharko da kontuan.

4. Atal honetan aurrikusi gabeko guztirako, Batzorde Informatiboarentzat, Lehen Atalean erabakitakoa izango da aplikagarri.

4. Atala. Bozeramaileen Batzordea.

107. Artikulua. 1. 1 Bozeramaileen Batzordea organo aholkuemailea eta Alkateari laguntza eskaintzen diona da, eta horren funtzioa izango da, gai baten gainean Udala osatzen duten Talde Politiko guztien iritzia ezagutzea komeni denean, horri laguntza eskaintzea. Horren jarduna ez da juridikoki loteslea alkatearentzat, eta har ditzakeen erabakiek ez dute ere, udal administrazio-

txostenaren baliorik. Bereziki, Batzordearen zeregina izango da, etorkizuneko jarrerak kontsentsuatzear gain, udal komunikatuak idaztea, non Talde bakoitzaren iritzia adieraziko den, interes orokorrekoa izan daitekeen gertakizun, egoera, etabarren aurrean.

2. Bozeramaileen Batzordea osatzen dute, batetik Alkateak, zeina lehendakari izango den, eta Talde Politiko guztietako bozeramaileek, hor barne sartzen da, baita, talde Mistoa, baldin balego.

3. Bozeramaileen Batzordeko Idazkari gisa, Udalekoa denak jardungo du, edo legalki, horren ordezkioa litzatekeenak. Alkateak, eztabaidakoak soilik diren bileretan, Idazkariaren etorrera, bazter utzi dezake, baina kasu horretan, ezingo da bileraren edukia buruzko fede publikorik eman, ez baliote behintzat, amaiera aldera deituko, deliberatutakoaren azken emaitzari buruzko fede ematea egiteko bakarrik. Idazkaria bertaratuko balitz, bere aholkularitza juridikoa eman beharko du, soilik, aurretik, legearen arabera aurrerapenarekin, berari, informa dezan, bere esku jarri zaizkion gaiak buruz, eta hori, bestalde, Alkateak edo Udaleko kideen kopuru legalaren heren batek eska lezaioke. Baldin eta, arazoa bileraren barnean planteatzen bazaio, eta Idazkariak ezingo balu une horretan erantzun, informatzeko dagoen epe legala emango zaio.

4. Bozeramaileen Batzordea Alkateak erabaki lezakeen guztietan bilduko da, hori bere ekimenez egin dezake, edo Bozeramaileen aldetik, arrazoituta, gehiengoak eska lezaiokeenean.

5. Bozeramaileen Batzordearen iritzia Udal Taldeen iritzi politikoa jasotzen du.

6. Atal honetan aurrikusi gabe geratu den guztian, Araudi honek ezarri dituen funtzionamenduarauak aplikatuko dira, hain zuzen, gainontzeko udal organo kolegiatuatarako ezarritakoak

HIRUGARREN KAPITULUA.

BORONDATEZKO ORGANO OSAGARRIEI BURUZ.

1. Atala. Zinegotzi Ordezkariek.

108. Artikulua. 1. Zinegotzi ordezkariak, Araudi honetako 41. Artikuluko 4, 5 eta 6 zenbakietan aurrikusitako Alkatearen eskuduntzen gaineko ordezkariaren bat, dute.

2. Zinegotzi ordezkariaren izaera, hurrengo kasu hauetan, galtzen da:

- a) Karguari, esanbidez, uko egiten zaionean, zeina Alkateari adieraziko zaion. Hala ere, uko egite hori ez da eraginkorra izango, Alkateak jakintzat eman dezan arte, dela esanbidez, dela isilbidez. Alkateak, uko egite hori, isilbidez, ezaguna duela ulertuko da, uko egitearen idatzia Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu zenetik, hiru egun igaro direnean, eta esanbidezko ebazpenik eman ez denean.
- b) Ordezkaritza baliogabetzearen, Alkateak, bere nahierara, hartutako erabaki bidez, hala ere, hura emateko erabili ziren formalitate berak erabili beharko dira.
- c) Gobernu Batzarreko kide izateari utzi egin zaionean.
- d) Zentsura-mozioa aurrera ateratzearen, Alkateak aurkeztutako konfidantzazko mozioa galtzearen, edo horrek, tarteko edozein arrazoi dela, bere kargua uzten duenean.

109. Artikulua. 1. Zinegotzi ordezkariak, eskuordetzari dagokion Dekretuan, zehaztuko diren eskumenak izango dituzte, eta hor aurrikusten diren arabera egikaritutako dituzte, Araudi honetako 41. artikuluan barne sartutako mota desberdinak kontuan izanik, eta hor bertan ezartzen diren arauen arabera.

2. Ordezkaritzen gaineko ebazpenak gai bati edo jardun-arlo bati egiten badio aipamena, generikoki, eta ahalmenak ez balitu zehaztuko, ulertuko da, jatorriz Alkateari legozkioketaz, eskuordetutako gaiari buruzko eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiak barne hartzen dituela, hortik kenduta hala ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera eskuordetaz liratekeenak.

3. Atal honetan aurrikusi gabe dagoenerako, Araudi honen III. Tituluko Hirugarren Kapituluan ezarritako arau orokorrak izango dira aplikagarri.

2. Atala. Batzorde Berezia eta Batzorde Teknikoak.

110. Artikulua. 1. Batzorde Berezia izango dira, Udaltzako gai zehatz baterako eratzea erabaki ditzakeenak, edozein motatako ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

2. Batzorde horiek, automatikoki, deuseztu egiten dira, bere helburua litzatekeen gaiaren gainean, behin-betiko irizpena edo txostena emandakoan, baldin eta, udalbatzaren erabakiak beste gauzaren bat ez balu esango behintzat.

111. Artikulua. Batzorde Teknikoak, Alkateak, bere nahierara, sor ditzakeenak dira, horiek Udalbatzako kideez edo horren zerbitzuan legokeen pertsonalez osa ditzake, gai zehatzak aztertzeko helburuz, direla horiek izaera iraunkorrekoak direla aldibatekoak, baldin eta Udalari edo horren Erakundeei eragiten badiote, nola diren, plangintza estrategikoa, helburuak eta ekintzak finkatzea, zerbitzuen koordinazioa, emaitzen ebaluazioa, etab.

2. Batzorde Tekniko horien Lehendakari Alkateak jardungo du, edo eskuordetza eman lezaiokeen zinegotzi edo funtzionarioak, eta Idazkari, Udalekoa denak jardungo du, edo horrek eskuordetza emango dion funtzionarioak.

3. Batzorde horietako kide izan daitezke udalerriko elkarte, erakunde edo taldeak, baldin eta horien helburua, arlo ekonomiko, sozial, kultural, kirol edo antzeko arloetako interes kolektiboak defendatzea bada, beti ere, horien eraketako ebazpenak zehaztuko duen eran.

4. Batzorde Teknikoen txostenak aukerakoak dira, eta beraz, ez dira lotesleak.

112. Artikulua. Atal honetan aurrikusi gabekoari dagokionez, Araudi honetan, Batzorde Informatiboen funtzionamenduari buruz erabakitakoa hartuko da kontuan.

3. Atala. Auzoetan, Alkatearen ordezkari pertsonalak.

113. Artikulua. 1. Alkateak, Udalbatzako kideen artetik, udalerriko auzo bakoitzerako, ordezkari pertsonal bat izenda dezake.

2. Alkatearen ordezkarien eskumenak, horien izendapena egiten den ebazpenean, zehaztuko dira, eta horren berri, hortik aurrera egingo den lehen osoko bilkuran, Udalbatzari emango zaio.

3. Alkatearen ordezkariak, agintari izaera izango dute, beren zereginak egiteari dagokion bezainbatean.

4. Karguaren iraupena, Alkatearen agintaldira loturik egongo da, eta horrek, egoki leritzon unean, kargutik ken ditzake.

4. Atala. Auzoetako Udal Batzordeak.

114. Artikulua. 1. Udalbatzak, Auzoetako Udal Batzordeak sortzea erabaki dezake, eta horiek, kudeaketa deskontzentratuko lurralde-organoen izaera izango dute, eta horiek izango duten helburua, udal eskumeneko gaietan kudeaketa hobetu, eta dagokion lurralde-eremuan, herritarren parte hartzea erreztea izango da.

2. Batzorde horien osaketa, antolaketa eta lurralde-eremua, horiei dagokien Araudi Erregulatuaz gain ezarriko dira, zeina Udalbatzak onetsiko duen, zeinak ezingo dituen, edozein modutan, aipatu udal organo horren ahalmenak kaltetu.

3. Batzordeen Araudiak zehaztuko ditu, baita, administrazio funtzioak, hain zuzen, udal eskumenekoak izanik, horietan eskuordetu direnak edo eskuorde daitezkeenak, hala ere, horrek ez dio kalterik eragingo udal kudeaketak izan behar duen batasunari.

4. Barrutiko Batzordeen funtzionamendua, Udalbatzak erabaki ditzakeen arauen arabera eraenduko da, hain zuzen, horiek erregulatuko dituen Arautegien bidez, eta Udalbatzaren funtzionamendua arautzen duten arauetan izango du iturburu, zeinak gehigarri gisa erabiliko diren.

5. Udal Batzordeen Araudia, ondorio guztietarako, Araudi Organiko honen barneko zati dela joko da.

5. Atala. Zerbitzuak egiteko organo deskontzentratu eta deszentralizatuak.

115. Artikulua. 1. Udalbatzak organo deskonzentratutak ezarri ahal izango ditu, aurreko ataletan zerrendatutakoetatik desberdinak.

2. Halaber, Udalbatzak nortasun juridiko propioa izan lezaketen erakunde deszentralizatuak sortzea erabaki lezake, baldin eta, beharrezkoa suertatuko balitz eraginkortasun, gaitasun edo kalitate gehiago lortzea, hurrengo gaitetan: zerbitzuen kudeaketan, horien konplexutasunaren onodorioz, prozeduren antolaketan, finantziazioa gehitu edo hobetzeko aukeraren aurrean, edo zerbitzuak eskaintzeko jarduna dela eta, herritarren parte hartze handiagoa lortzea komenigarri denean.

3. Aurreko zenbakian aipatzen diren erakunde eta organoen eraketa, Toki Erregimeneko legeria orokorrean xedatutakoak arautuko du, zerbitzuen kudeaketari dagokion forma den bezainbatean, eta edozein kasutan, horien antolaketan, aurreztearen printzipioari begiratuko zaio, hain zuzen, horien kopurua ahalik eta txikiena izan dadila, zerbitzuak egokiro eskaintzeari begira.

4. Kudeaketako erakunde deszentralizatuaren organo kolegiatuaren funtzionamendua, zerbitzuen kudeaketaren formari dagokion legerian erabakitakoak eraenduko du, hain zuzen, horren izaera espezifikoaren arabera; eta bere kasuan, Udalbatzak, osoko bilkuran, onetsitako Erakundearen Estatutuak adierazten duenak; eta Udalbatzak, bere tutoretzako eskumenak erabiliz, erabaki lezakeenak, eta gehigarri gisa, Araudi honetan erabakitakoak.

V. TITULUA

PROZEDURA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA.

116. Artikulua. Honako arau hauek arautzen dute Udalaren Erregimen Juridikoa eta administrazio-prozedura:

- a) Amankomuneko Erregimen Juridikoari eta administrazio-prozedurari dagokion gaiaren gainean dauden estatuko oinarritzko legeek.
- b) Toki Erregimenaren eta administrazio-prozeduraren gainean, Euskadiko Autonomi Erkidegoak eman ditzakeen legeek.

- c) Aurrekoaren ezean, gehigarri gisa, Toki Erakundearen Erregimen Juridiko eta administrazio-prozedurari buruzko estatuko legeek, horiek oinarritzko izaera edo izaera arrunta ez balute.
- d) Udalak berak, administrazio-prozedurari buruz, har ditzakeen Arautegien bidez.

117. Artikulua. 1. Baldin eta horren aurka emandako lege xedapenik ez balego, txosten guztiak aukerakoak direla, eta ez direla lotesleak, joko da. Hala ere, aukerako txostenak, ahalik eta gutxien egitera joko da..

2. Idazkari Nagusiak eta Kontuhartzaileak egin behar dituzten derrigorrezko txostenen kalterik gabe, Alkateak, egoki leritzonean, eskatu ahal izango ditu beste txosten edo irizpenak.

3. Txosten juridikoak argi eta labur idatziko dira, eta hor barne agertuko dira:

- a) Gertakizunen aipamena.
- b) Aplikagarri zaizkion oinarri juridikoak.
- c) Zati erabakitzaileak euki behar duen pronuntziamendua.

4. Txosten ekonomiko-finantzario, tekniko edo beste mota batekoetan, horiek duten helburua adierazi beharko da, eta baita, interesgarri jo daitezkeen aurrekariak, eta txosten egileak gertakizun horiei buruz euki lezakeen uste edo iritzi teknikoa, eta Udalari egiten dion proposamena edo ondorioa.

5. Txosten guztiak, funtzionario txostengilearen ezagutza eta ulermen leialaren arabera, idatziko dira.

6. Udaleko inor ez da ahaleginduko funtzionario txostengilearen borondatea bortxatzen. Zenbaki honetan xedatutako arauhaustea, Gobernuako organoen kudeaketa jarraitzen duen Batzordearen ezagutzan jarri daiteke, ondorio egokiak izan ditzan.

7. Funtzionario txostengileak beren egintzen erantzule izango dira, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta administrazio-

prozedura arruntari buruzko lege orokorretan ezarritako xedapenen arabera.

118. Artikulua. 1. Administrazio Zerbitzuek Batzorde Informatibo baten esku jarri dezaketen dosierak, derrigorrez, ebazpen-proposamen bat eukiko du.

2. Batzordeko proposamenaren egilea, horko Idazkaria gabe, beste funtzionario bat denean, ebazpen-proposamena barneko posta elektronikoz igorriko zaio, bilkura egin baino lehenago, horrek hala ere, ez dio kalterik eragiten, proposamena euskarri fisiko bidez bidaltzeari.

119. Artikulua. 1. Dosiera behin amaiturik egotean, Udalbatzako Idazkaritzan entregatuko da, zeinak, aztertu ondoren, Alkateraren esku jarriko duen. Aipatu entrega horrek barne hartzen du, baita, Batzordeko irizpena bidaltzea ere, barneko posta elektronikoz bidez; hori horrela, irizpen horiek, Batzordeetako idazkariak Idazkaritza Nagusira bidaliko dituzte, irizpena onetsia izan zen data adieraziz; guzti horrek, hala ere, ez dio kalterik eragiten dokumentu horri buruzko euskarri fisikoa bidaltzeari.

2. Gai-zerrendaren barnean sarzeko aukera egon dadin, dosiera Idazkaritzaren esku egon beharko du, gutxienez, bilkura egiteko jarri den data baino hiru egun lehenago, ez bada behintzat, presazko bilkura.

120. Artikulua. 1. Udalbatzak, Gobernu Batzarrek, Alkateak edo zinegotzi ordezkariak hartutako ebazpen eta erabakiak, Legean aurrikusita bezala, argitaratu eta jakinaraziko dira.

2. Ordenantza eta Araudiak, hirigintzako planen arauak barne direla, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta ez dira indarrean sartuko, horien testua, osorik, argitaratu, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurrikusitako epea igaro arte.

3. Dekretuen liburuak, ondorio horretarako egingo den Diligentzia bidez legalizatuko dira, eta liburu bakoitzeko lehen orrialdean agertu beharko du, horrek dituen orrialde kopurua, ebazpenak zein epealdikoak diren, hor jasotzen diren Dekretuen lehen eta azken zenbakia, eta Idazkaritzako

titularrak sinatuko du, edo legearen arabera, horren ordezkioak. Dekretuen liburuari dagokien bilduma paper arruntan edo hori izapidetu duen Bulegoan erabiltzen den ofizioan egingo da, eta ez da beharrezko, orriak zenbakiturik izatea.

121. Artikulua. Akten formalizazioa eta egiaztapenak luzatzea, hurrengo legeetan erabakitakoak eraenduko du, hau da, Toki Erregimenari buruzko estatuko oinarritzko legeak, Euskadiko Autonomi Erkidegoak, Toki Erregimenari buruz, gara ditzakeen legeak, eta gehigarri gisa, Toki Erregimenari buruz, oinarritzkoak ez liratekeen estatuko legeak.

122. Artikulua. Udal organoen artean sor daitezkeen gatazkak, honela konponduko dira:

- a) Dagokion Arlo bakoitzeko Ordezkariek, arlo beraren menpekoak liratekeen administrazio-unitateei eragiten dien gatazkak liratekeenean.
- b) Alkateak, arlo desberdinetako administrazio-unitateen arteko gatazkak liratekeenean, edo pertsona bakarreko organoak liratekeenean, edo arloetako ordezkarien artekoak liratekeenean.
- c) Udalbatzak, gatazka organo kolegiatuen artean litzatekeenean, edo organo kolegiatu baten eta pertsona bakarreko organoaren artean litzatekeenean.

123. Artikulua. Udalaren erantzunkizunaren erregimena arautzen du, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta administrazio-prozedura arruntari buruzko lege orokorretan ezarritakoak.

VI. TITULUA

HERRITARRAREN ESTATUTUA.

124. Artikulua. Auzotarrei, bai Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta administrazio-prozedura arruntari buruko legeetan, bai Toki Erregimenari buruzko lege orokorretan ezagutzen zaizkien eskubideez gain, udalerriko auzotarrei eta elkartei, erakundeei eta taldeei hurrengo eskubide hauek ere ezagutzen zaizkie:

- a) Udalbatzari, mozioak, eskariak eta galderak aurkeztea.
- b) Udalbatzaren bilkuretara agertzea, hori atea itxita egiten ez bada behintzat, Araudi honetan aurrikusita dagoen arabera.
- c) Batzorde Informatiboetan edo Batzorde Teknikoetan entzunak izatea, Araudi honetan aurrikusita dagoen arabera.
- d) Edozein eskari egitea, daukaten eskari-eskubidean oinarrituta.
- e) Pertsonalki, kudeaketa erantzunkizunak dituzten Udaleko kideen aldetik entzuna izatea, Araudi honetan aurrikusita dagoen arabera.
- f) Udal baliabide publikoak erabiltzea, horien erabilpen eremuaren arabera.
- g) Herri-ekimen arauemailea izatea.

125. Artikulua. 1. Udalerriko auzotarren interes kolektiboak ordezkatzan dituzten auzotarrei, elkartei, erakundeei edo taldeei mozioak aurkezteko eskubidea aitortzen zaie, beren interesekoa litzatekeen udal gaien gainean.

2. Mozioak, Udaletxeko Erregistro Orokorrean, aurkeztuko dira, eta alde batetik, gaiaren adierazpena edo horren arrazoiak joango dira, eta bestetik, erabaki-proposamena. Talde politikoetako bozeramaileei, aipatu mozioaren kopia bat bidaliko zaie.

3. Herri ekimeneko mozioak Bozeramaileen Batzarrak aztertuko ditu, organo aholku-emaile den bezainbatean, Alkateak hartuko duen erabakiaren aurretik. Alkateak ezetsi dezake mozioaren izapidetza, behin Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, Araudi honetako 71.3 artikuluko c) letzan ezarritako prozedura bidez. Atzera botako balitz, horri buruzko arrazoitutako ebazpena, hura aurkeztu zukeenari, jakinaraziko zaio. Edozein kasutan, baldin eta mozioa Zentsoaren %10ak edo gehiagok abalatu egongo balitz, Udalbatzak eztabaidatu eta bozkatu beharko luke, eta horrek ez dio kalterik eragiten, ekimenaren erabakia, gaiaren arabera legokion organoak hartzeari.

4. Baldin eta mozioa ez balitz errefusatu izango, Alkateak erabaki beharko du, edo eskumena lukeen Batzordeari bidaltzea, hain zuzen, gaiaren arabera legokiokkeenari, horrek egoki litzatekeen

irizpena eman dezan, edo zuzenean, Udalbatzari bidaltzea.

5. Behin mozioa izapidetu ondoren, Udalbatzaren gai-zerrendaren barne sartuko da, legokion Batzorde Informatiboaren Irizpenarekin batera, bere kasuan. Baldin eta mozioa Gai-zerrendaren barne sartuko balitz, proposamen horren egileari audientzia emango zaio, aurretik horrek, Alkateari eskatu ostean; modu horretan, ordezkari bakarraren bidez, bere iritzia ager dezan, hitzez, Alkateak emandako denboran, mozioaren eduki eta jatorriari buruz, gai-zerrendaren barnean legokeen proposamena eztabaidatu eta bozkatu aurretik. Ondorengo eztabaida eta bozketa, Udalbatzako kideei bakarrik, dagokie, eta bilkurara etorritako jendeak, ezta ere, mozioa aurkeztu duenak, ezingo du horretan parte hartu, eta Udalbatzaren osoko bilkuraren funtzionamenduko arau orokorrak aplikatuko dira.

6. Mozioaren eztabaida eta bozketa, Araudi honetan, Udalbatzaren osoko bilkuraren funtzionamenduaren gainean, ezarritakoak arautuko du.

126. Artikulua. 1. Aurreko artikuluan aipatzen diren auzotarrek, elkarteek edo erakundeeek, halaber, eskari eta galderak egin ahal izango dizkiete Udaleko gobernu-organoei, eta horiek, Araudi honetako 71. artikuluko 6 eta 7 zenbakitan ezarritako helburu berak izango dituzte, izaera orokorrenekin.

2. Auzotarren ekimenezkoak diren eskari eta galderak, beti, idatziz aurkeztu beharko dira, eta horiek, Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira.

3. Eskari eta galderak hurrengo osoko bilkuran ikusiko dira, baldin eta behintzat, gutxienez, Udalbatzaren osoko bilkura baino zazpi langegun lehenago aurkeztuko balira. Egun gutxiago balira, Alkateak, bere nahiera, ondorengo lehenengo osoko bilkuran, edo hurrengoan, ikustea erabaki lezake. Hala eta guztiz, Alkateak, Bozeramaileen Batzordeari entzun ondoren, eta arrazoitutako ebazpen bidez, auzotarrek aurkeztutako eskari edo galdera bat ez onartzea erabaki dezake.

4. Ez da onartuko, zuzenean norbaiti, zuzendutako eskari eta galderarik, ezta adeigabeak direnak, edo talde politiko zehatzei zuzenduak.

5. Eskaria egiten duenak, edo galdera egiten duenak eskubidea izango du, Udalbatzaren aldetik, entzuna izateko. Eskubide horretaz baliatzeko, Alkateari eskatu beharko dio, bilkura hasi aurretik, audientzia emana izan dakiola, zeina, ukatua izan lezaioke, bakarrik, arrazoitutako zioengatik, eta Alkatearen iritzia irabera. Baimendua izango balitz, eskaria proposatzen duenak edo galdera egiten duenak, bere iritzia agertuko du, Alkateak jarri lezaiokeen denboran, eta bere kasuan, eman daitekeen eztabaidaren aurretik. Eztabaida, baldin eta emango balitz, Udalbatzako kideei bakarrik dagokie, eta bilkurara etorritako jendeak, eskaria proposatu duenak, edo galdera egin duenak, ezingo dute horretan parte hartu, eta Udalbatzaren osoko bilkuraren funtzionamenduko arau orokorrak aplikatuko dira.

6. Udalbatzak aukera dauka, auzotarrek aurkeztutako eskariari buruz eztabaidatzeko, baina eztabaidatik, zuzenean, ez da erabaki bat hartzeko derrigortasunik sortzen, eta hori horrela, Udalbatza, gaiaren jakitun izatera edo eskariaren jasotzaile izatera, muga daiteke.

7. Auzotarren ekimenezko galderak, normalean, nori zuzendua dagoen kontuan izanik, hark erantzungo ditu. Hala ere, Alkateari gabe, beste norbaiti egindako galderari, Alkateak berak erantzun diezaioke.

127. Artikulua. 1. Auzotarrek Udalbatzaren bilkuretara joateko eskubidea dute, horiek ez badira behintzat atea itxita egiten, apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Araudi honetako 60. artikuluan ezarritako kasu eta baldintzetan.

2. Udalbatzaren bilkuretara joaten den jendeak, begirunezko jokabidea euki beharko du, eta isiltasuna gorde beharko du eztabaida eta bozketa denboran, hori ez balitz beteko, Araudiko 61. artikuluan aurrikusitakoa aplikatuko litzateke.

3. Udalbatzaren bai deiladiak eta gai-zerrendak, bai bilkuretako aktak, behin onesten direnean, Udaleko Ediktu Taulan jarriko dira jendaurreko, hala ere, horrek ez dio kalterik eragiten, tratatuko diren gaien buruzko eta hartutako erabakiei buruzko zabalkuneari, zeina, dagokion komunikabideen bitartez egingo den.

4. Aurreko atalean xedatutakoaren kalterik gabe, Udalbatzaren bilkuretako gai-zerrenda, hurrengo era honetan emango da jakitera:

- a) Ofizioz, Auzotarren Elkarteei bidaliz, horiek legalki eratuta eta Udalaren Elkartearen Erregistroan inskribatuta daudenean, hori, izenda dezaketenen ordezkariari postaz bidaliko zaio, edo hori Idazkaritzan aurkeztuko da.
- b) Udalaren Zentro Ofizial batean jendaurreko jarritz, gutxienez auzo bakoitzean, horien aukeraketa, hala ere, Alkatearen esku uzten da, aurretik Bozeramaileen Batzordea entzun ondoren.
- c) Udalerriko kolektibo, elkarte edo erakundeei bidaliz, baldin eta horiek auzotar ekimeneko mozioa, eskaria edo galdera planteatu balute, eta horiek Udalbatzaren osoko bilkurako gai-zerrendaren barruan sarturik baleude.
- d) Aipatu Gai-zerrenda, kolektibo edo elkarteei, bidaliz, baldin eta horiek, Udalbatzak hartu beharreko erabakia hartu baino lehen izapidetu litekeen prozedura administratiboan, interesatu izaera balute.

128. Artikulua. 1. Udalerrikoak diren auzotarrek eta elkarteek, edo erakundeei, eskubidea dute Udalaren Batzorde Informatiboetan eta Batzorde Bereziak entzunak izateko, 102.3 eta 111.3 artikuluetan aurrikusita dagoen bezala.

2. Baldin eta, parte hartze hori, auzotarrek, elkarteek edo erakundeei eskatuko balute, baina eskumena duten udal organoek hori ez balute berretsiko, aipatu ebazpena jakinaraziko zaie; hala ere, horrek ez die bere eskubideetan kalterik eragiten, aipatu Batzordeen aurrean, idatziak aurkezteko, eta, alegazioak eta eskariak egiteko.

129. Artikulua. Udalerriko auzotar, elkarte edo erakunde guztiek eskariak egin diezaizkiokete Udalari, udal eskumenekoa izan daitekeen edozein gaiaren gainean, eta horiei ebazpena, edozein kasutan, esanbidez, eta egoki litzatekeen zentzuan emango die eskumena lukeen udal organoak. Eskari bati esanbidezko erantzuna ukatzeko, ez da nahikoa izango, eskari-eskubide generikoan oinarritzen dela esatea.

130. Artikulua. 1. Udalerriko auzotar, elkarte edo erakunde guztiek dute eskubidea, pertsonalki, kudeaketa erantzunkizuna luketen Korporazioko kideen aldetik, entzunak izateko, gutxienez behin, berari eragiten dion gaien gainean hitzegiteko xedez.

2. Aipatu audientzia, Alkatearen idazkariari eskaria egin ondoren, gauzatuko da, eta arduradun bakoitzaren agendaren menpe egongo da.

3. Alkateak, bere nahiera, antolatuko du berari dagokion agenda, eta berak erabakiko du, ea pertsonalki hartuko duen, edo eskuduntza hori, egoki leritzon Udaleko kideren baten esku utziko duen.

131. Artikulua. Denek izango dute sarbidea, erabilera orokorrekoak diren udal baliabideetara, horiei dagokien erabilera den bezainbatean, hala ere kontuan hartu beharko dira, udal araudiak ezarri ditzakeen mugak. Zerbitzu publiko bati atxikitako udal instalazioak erabiltzekoan, udalaren, edo Udalaren menpeko diren Zuzenbide Publikoko erakundeen barne araubideko arautegietan erabakitakoa izan beharko da kontuan, horien erabilera arautzen duten heinean.

132. Artikulua. 1. Herritarrei ezagutzen zaie, udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea dutenei, herri-ekimen arauemailea izateko eskubidea, eta horretarako, udal eskumenekoak diren gaietan araudi-proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte.

2. Ekimen horrek, gutxienez, Zentsuaren %10ak sinatua izan behar du.

3. Ekimen horiek Udalbatzak eztabaidatu eta bozkatu beharko ditu, eta horrek ez dio kalterik eragiten, ekimenaren erabakia, gaiaren arabera legokion organoak hartzeari. Edozein kasutan beharrezkoa da, aurretik, Udaleko Idazkariaren legalitate-txostena izatea, eta baia Kontu Hatzaillearena ere, baldin eta ekimenak eduki ekonomikoa duten Udalaren eskubide eta obligazioei eragingo balie.

4.- Ekimen horiek barne har dezakete tokiko herri-konsulta baten proposamena, eta hori, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikuluan ezarritako prozedura eta baldintzen arabera

izapidetuko litzateke, lege horrek arautzen baititu Toki Erregimeneko Oinarriak.

133. Artikulua. Irabazi asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko orduan, eskariak, Dirulaguntzak emateko indarrean dagoen Ordenantza Orokorren eta aplikagarri zaion arautegi sektorialaren arabera izapidetuko dira, indarrean dagoen Aurrekontuan ezarritako mugarekin.

134. Artikulua. Udaletxean, Informazioko Bulego bat egongo da, zeinek bere gain hartuko dituen ezarritako zerbitzuak, hain zuzen, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta administrazio prozedura arruntari buruzko lege orokorretan, herritarren informazio eskubideari dagozkionak.

135. Artikulua. Araudi honetan, herritarren elkartei ezagutzen zaizkien eskubideak, hain zuzen, auzotarren interes orokor edo sektorialen defentsarako ezagutuak, bakarrik, Herritarren Elkarteen gaineko Udal Erregistroan, egokiro inskribaturik leudekeen haiek erabili ahal izango dituzte, izan ere, horrek helburu hori baitu.

VII. TITULUA

EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEAREN GAI NEAN.

136. Artikulua. 1. Udalak Euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatuko du, gai horri buruzko lege espezifikotik erabakitakoaren arabera.

2. Publikoarekin harreman zuzena luketen bulego guztietan, funtzionario elebidunak egongo dira, hain zuzen, udal administrazioarekin euskaraz harremanak izateko, herritarren eskubidea bermaturik eratuko den kopuru nahikoan.

3. Euskaraz aurkeztutako idatzi oro, hizkuntza horretan izapidetuko da, horrek ez dio kalterik eragiten hala ere, gaztelaniara itzultzeari, hori izapidetu behar duen edo duten funtzionarioek horrela eskatu ezkeru.

4. Egiten den dokumentazio oro, baldin eta horren idazkerak auzotar askori eragiten badio, nola diren: zerga-errolden ordainagiriak, auzotarrei bidalitako gutunak, bandoak, etab., elebidun izango da.

jarriko da indarrean, baldin eta, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurrikusitako epea igaro bada.

VIII. TITULUA DISKRIMINATZAILE EZ DEN HIZKERAREN ERABILERA.

1.- Udala, Emakunde-Emakumearen Institutuak gomendatutako ekintza positiboen egitasmoko arautegiari jarraiki, udal jarduera guztietan, sexoagatik diskriminatzailea izango ez den hizkera erabiltzen, ahaleginduko da.

2.- Udal Araudi Organiko honetako artikulua guztiek, horiek izen edo adierazpen maskulino edo femeninoei erreferentzia egiten dietenean, beti, bi aukerei egiten dietela erreferentzia ulertu behar da, eta modu horretan, erabilitako hizkera, sexoari dagokionez, ez dela diskriminatzailea ulertu behar da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK:

Lehenena.- Araudi honek ez die eragiten, hori indarrean sartu aurretik, hasita leudeken prozedurei. Hori horrela, data horren ondoren hasiko diren prozedurei aplikatuko zaie.

Bigarrenena.- 1. Araudi hau indarrean sartzen dela eta, horregatik, Udalak ez du gaur eguneko egitura eta osaketa aldatuko, eta ez dio ere eragingo horren antolaketako egiturari.

2. Hori horrela, gaur egunean udalean dauden talde politikoek, orain arteko izen eta osaketarekin, jarraitu ahal izango dute, agintaldi hau irauten duen artean, eta ez dute, Araudi honetako aginduetara, egokitu beharrik izango.

3. Hala ere, dauden talde politikoak aldatzeko, Araudi honetako preskripzioak jarraitu beharko dira.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Araudi Organiko hau, Bizakiko Aldizkari Ofizialean, osorik, argitaratu ondorengo biharamunean